



## Greba margotzen

Mugimendu feministak zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba feminista orokorra deitu du hilaren 30erako / 2-5

**Zuhatzuko Kontzejua eta Iturmendiko Udala berritzeko hauteskundeak igandean** / 9

**la urte baten ondoren, pediatria zerbitzua bere onera bueltatu da Altsasuko osasun eskualdean** / 9

**Nora Ruiz Melero irurtzundarra, Osasuna Beteranoetan debutatu duen lehen emakumea, "oso pozik"** / 16-17

**Lakuntzako Herri Antzerki taldea osatzeko lehenengo urratsak eman dituzte** / 21

ZUTABEAK

 OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU / 7

 SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK / 7

 IRATI PELLEJERO MARIN / 22



Mondragon Unibertsitatea  
Goi Eskola Politeknikoa



ATE IREKIAK  
**GOIERRI CAMPUSA**  
ORDIZIA  
Ingeniaritza  
Mekanikoko  
Gradua  
Abenduak 2, 11:00

**EMAN IZENA!**  
[www.mondragon.edu/ate-irekiak](http://www.mondragon.edu/ate-irekiak)

# Esklabotza Sakanan

Sexu eta arrazagatik lan desberdinak egiten ditugu, eta horrek lan merkatua baldintzatzen du. Ondorioz, nagusiki, emakumezkoak eta migranteak prekariedade handiko egoerak bizi dituzte; lan karga handiak eta laneko eskubideen urraketak

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Izan zitekeen Guadalupe, Zulema, Milagros edo Eugenia. Edo dauden mordo handi horretako beste bat. Beste emakumezko bat. Atzeritarra, hegoamerikarra, ibarrean sakandarren zaintzez etxean bertan arduratzen den emakumea. Haietako bat da Lucia. Jakina, asmatutako izena da, egoera egonkortzeko paperak tramitatzen ari baita. Asmatutakoa ez dena bere bizitza da, Sakanan bizi izan duena. Lucia 25 urterekin etorri zen. Informatika ikasketak eginak ditu, eta sorterrian lana zuen, baina soldadak ez zion aukera ematen bera, alaba eta etxeko gastuak aurrera ateratzeko. "Honako bi-dea eginga zuen herriko lagun bat nuen. Inguruan halako pausoa eman zuen bakarria. Nola nenbilen bazekien eta etortzeko esan zidan. Nik ez nuen alaba utzi nahi, urtea pasatxo zuen". Asko hausnartu zuen eskaintza, sorterrian zuen egoera eraman ezina zitzaion, eta etortzea erabaki zuen, "alaba aurrera ateratzeko" egin zuen. "Hemen izan dudana lana alaba eta familia aurrera ateratzeko izan da. Nire menpeko baitira nire ama, anaia txikiak eta amona". Amak eta amonak ezin dute etxetik kanpo lanik egin. Gainera, ama ilobaren zaintzaz arduratzen da.

Hortxe zaintza kate globala. Iparraldeaberatsean emakumezkoak lan merkatuan sartzeak ekarri du "zaintza krisia", ema-

kumezkoak ez baitaude etxean zaintza lan horiek egiteko. Eta gure gizarte aberatsean zaintza lanen berrazterketa edo berregiturarik ez dagoenez, etxeko zaintzaren subkontratazioa dago. Eta halako zaintza egiteko prest dauden bakarrak hegoaldeko herrialdeetako emakumezkoak dira. Sorterrian egoera latza bizi duten emakumezkoen bizkar gelditzen dira herrialde aberatsetako zaintza lanak. Eta atzeritik etorritako emakumezkoen seme-alabak, aldi berean, haien familietako emakumezkoen zaintzapean gelditzen dira. Hala da Luciaren kasuan ere. Goitik beherako prekariedade katea.

## Etorrera

Laguna Gasteizen etxe batean zaintza lanak egiten ari zen. "Hegazkin txartela erosita nuela, lanik gabe gelditu zen. Hala ere, etortzeko esan zidan, aurrera egingen genuela nola edo hala". Etorri zen eta Gasteizen zela lagunari Etxarri Aranatzen lana sortu zitzaion. Lucia Gasteizen gelditu zen, baina lagunak bi etxebizitzengatik ezin ordaindu zuenez, Sakana etorri zen.

Hemengoaren beste irudi bat zuen Luciak. Baina bere lagunak aurretik argi eta garbi jakinarazia zion zein lan egin zitzakeen hona etorritz gero. "Jakin behar duzu horiei aurre egiten, zer egoera biziko dituzun", esaten zion. Alabagatik etorri zen. "Hemengo ikuspegi ideal batekin

etortzen gara, oso polita, herrialdeak ateak zabaltzen dizkizu. Baina legez kanpokoak zarenean eta gure baldintzetan lan egitea tokatzen zaizunean, errealitatea bestelakoa da. Ez nuen pentsatu nolako egoera bizi behar nuen. Ez baita gauza bera entzutea eta bizitzea. Nik bizi izan dudanean badakit oso zaila dela".

Herri txiki batekoa da Lucia eta Sakanan gustura dago. Hirietan lan egiteko aukera izan du, baina nahiago du herrian bizitzea, horretara ohituta dago.

## Egoera legeztatzea

Atzeritartasun Legearekin egiten dugu topo hemen. Estatuan legezko egoeran ez dauden pertsona atzeritarrak sorterrira deportatzen dituzte. Etorri berri den pertsona baten aurreneko pausotako bat herriren batean erroldatzea da. Bi hilabetetara

**"HEMEN IZAN DUDAN LANA ALABA ETA FAMILIA SORTERRIAN AURRERA ATERATZEKO IZAN DA"**

**"EZ NUEN PENTSATU ZER BIZI BEHAR NUEN. EZ BAITA GAUZA BERA ENTZUTEA ETA BIZITZEA"**

osasun etxean eskaera egin behar dute osasun txartela eskuratzeko. "Zure egoera legeztatzea eskaera egiten duzunean erakutsi behar duzu estatuan hiru urtez jarraian bizi izan zarela". Errolda agiria horren froga da. "Hiru urte horien ondoren lan kontratua izan behar duzu. Eta ez duzu zigor aurrekaririk izan behar ez sorterrian ez hemen. Eskabidea aurkezten denetik erantzuna jaso arte zazpi edo zortzi hilabete pasatzen dira", azaldu du Luciak.

Eta hiru urte pasatxo horietan lege linbo batean bizi beharra dute. "Arazoen beldur, jende askori beldurra ematen dio legezko egoeran ez dagoen pertsona bati etxea alokatzea. Luze bilatu behar izan dugu, baina badira pertsona onak, non bizi eman digutenak". Eta lege zulo beltz horrek esplotazioarako baldintza egokiak sortzen ditu; besteen premiez baliatu lan baldintza eskasak ezartzeko. Berdin da generoa edo sektorea. Eta zaintza sektorean, eta Sakanan, gertatzen da. "Hiru urte horietan legez kanpo lan egin behar duzu: zaintzan, garbitzen..." Lucia adineko pertsonak zaintzen aritu da etorri zenez geroztik.

Paperak berriki lortu ditu Luciak. "Urte baterako erresidentzia baimena eman zidaten, eta hura berriro beharra dago". Aurrenekoa urte baterako da, bigarrena bi urterako. Azken hori lortzeko tramiteak egiten ari da. Bere hurrengo pausoa eta asmoa naziotasuna lortzea da. "Horretarako egokia naizen jakin dezaten azterketa egin beharra dut".

Erresidentzia baimena izanda, edozein arlotan lan egin dezake Luciak, "beti ere, lan hori eman nahi badidate", zehaztu du. Informatikoa bada ere, bere sorterriko ikasketak ez dira baliozkoak hemen. "Hego Amerikako beste herrialde batzuetako gida baimena eta ikasketa baliozko egiten dituzte, nire herrialdekoak ez. Askotan galdetu dut, eta ez; ikasi beharra dudala esan didate. Eta horretarako egonkortasun ekonomikorik





**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Harreman estua sortzen da zaindu eta zaintzailearen artean. ARTXIBOA

eta dirurik ez dut", argitu du Luciak.

#### Laneratzea

Lagunak argi esan zion "paperik ez duzun bitartean hau besterik ez dago, zaintza edo garbiketeta".

Iritsi eta hogeit hamar egun eman zituen lanik gabe. "Lagunaren lagun bidez etxeko langile baten premia zuen Altsasuko familia baten berri izan nuen. Jendeak zaintzailea bilatzen duenean da edo adinekoak laguntza behar

duelako edo osasun arazoak dituelako".

Lagunaren bidez familiarekin harremanetan jarri zen. Elkarrikeria egin zioten. Besteak beste jatekoak prestatzen bazekien galdetu zioten. Botikak nola eman erakutsi eta gai zen ikusteko aste bateko probaldia egin zioten. Luciak azaldu duenez, "adinekoak zaintzen sekula ez nuen lanik egin sorterrian. Fardelak aldatzen banekien, aitonari aldatzen bainizkion, baina desberdina da".

Adinekoen zaintza lanak oso bereziak direla esan du Luciak. Jatekoak prestatzen, medikazioa ematen eta bestelakoak ikasi behar izan zituen. "Jakiak hemen nola prestatzen diren, lagunak erakutsi zidan, pureak eta beste. Adinekoekin zerikusia duen guztia berak erakutsi zidan". Adineko pertsonak mugitzeko teknikak bere kabuz ikasi behar izan zituen.

Lucia etxera lanera joan zen aurreneko egunean adineko pertsonarekin bakarrik utzi zuten, Alzheimer gaixoa. "Aurretik beste zaintzaile bat izan zuen adineko pertsona agresiboa zen. Aurreneko gaua oso zaila izan zen. Ezin nuen berarekin eta negarrari eman nion. Jarraitu beharra nuela jakin nuen, oheratu nuen eta kitto". Ez zuen paperik.

#### Lan baldintzak

Probaldia gainditu zuen Luciak eta zaindutako pertsona hil zen arte haren zaintzailea izan zen. Ia lau urtez etxe barruan lan egin zuen. Zaindua eta zaintzailea, biak bakarrik bizi ziren etxean. "Astelehenetik igandera lan egiten nuen, hilean bi aste-buru libre nituen. Libratzen nuen asteburuetan larunbatean 12:00etan atera eta igandean 20:00etan bueltatzen nintzen lanera. Egunero atsedean pixka bat hartzeko ordu batzuk ere ez zizkidaten eman". Atsedean hartzea ere zaila zitzaion: "libratzen nuen asteburuetan senideek eskatuz gero, lehenago bueltatu beharra nuen. Edo kendu egiten zidaten. Oso lan zaila izan zen".

Matematikak ikuspegi argia ematen dute: 30 eguneko hilabete batek 720 ordu ditu. Luciak horietatik 64 besterik ez zituen atsedenerako. Hilabetean 656 ordu lan egiten zuen etxe barruan, batz bestea 164 ordu astean. 40 orduko lan astea duen langile batek 160 ordu sartzen ditu hila-

betean. Langile horren hilabete-ko lan orduak aste bakarrean egiten zituen Luciak.

Kontakizunarekin segitu du: "lo nengoela zaindutako pertsonak deitzen baninduen, joan beharra nuen. Baziren lo egin ezinik gelditzen zen gauak, zaindutakoa ohetik altxatzen zelako, sofan eseri eta ohera joan nahi ez zuelako. Eta hura zaintzen gelditu behar nuen, min har ez zezan. Eta hurrengo egunean, beharko eta, esna egon behar, zaintzarekin segitzeko".

Luciaren ardura zen gaztigatzea botikak bukatu zirela. Senideek eramaten zizkioten. "Gaixotuz gero, ezohikoak zirenak gertatu edo agresibo jarri eta ezin kontrolatu egonez gero, hots egin eta jakinarazten nien. Batzuetan botika emateko esaten zidaten, beste batzuetan etxera joaten ziren, beste batzuetan ez. Iritsi zen une bat agresibo jartzen zenean ez niela hots egiten, bakarrik kontrolatzen saiatzen nintzen, apika garaiz ez zirelako iritsiko, edo iristen zirenerako lasai zegoelako". Senideak ez deitzera ikasi zuela azaldu du Luciak: "ez badira agertzen zertarako hotsegin. Zuk kontrolatzen ikasi behar duzu".

Legezko egoeran ez zegoenez, ez zuen kontraturik. "Ez zuten ordaindu beharrekoa ordaintzen. Ez dut soldata handi bat eskatzen, baina nongoen baldintzetan 900 euro baino gutxiago ordaintzen zidaten. Baina premiak lan horiei heltzera behartzen zaitu batzuetan".

#### Harremana

Zaindutakoarekin bakarrik ordu asko pasatzen dituzte zaintzaileek. "Hasiara zaila izan bazen ere, maitasun handia hartu nion. Azkenean, pertsonak zurekin bizitzera ohitzen dira, lasaitzen

### "HIRU URTE HORIETAN LEGEZ KANPO LAN EGIN BEHAR DUZU: ZAINTZAN, GARBITZEN..."

### "EZIN NUEN HAREKIN, ETA NEGARRARI EMAN NION. JARRAITU BEHARRA NUELA JAKIN NUEN"

doaz. Eta maitasun horregatik etxe horretan lanean segitzen duzu". Atxikimendu horretaz ere baliatzen dira.

Baina familiarekin ere badute harremana zaintzaileek. Adinekoaren senideek bisita motzak egiten zituzten, haren egoeraz galdetu, etxea garbi zegoela ikusi eta gutxi gehiago. Luciak libre zuen asteburuetan haren ardura hartzen zuten. Bestelako deiak ere jasotzen zituen: "ez dago ongi. Ezin dugu berarekin. Zu deitzen zaitu. Etorri mesedez. Ez zuen haiekin egon nahi nirekin eguneko 24 orduak pasatzen zitu-lako, hamabostean behin ni besterik ez ninduen ikusten. Nik altxatzen nuen, nik ematen nion gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen, elkarrekin ikusten genuen telebista. Familia joaten zenean eta ni ez nongoenean, zainduaren-dako nahasmena zen".

Halako deiak jasotzen zituenean, Luciak joan beharra zuen, nahiz eta lagunekin egon. "Iritsi zen une bat asteburuetan ez nintzela etxetik ateratzen, asteburu sofian ematen nuela, 'Edozein unetan hots egin nazakete' pentsatzen nuen. Esaterako, Donostiara egun pasa joanen banintz eta hots eginen balidate ezin iritsi ibiliko nintzateke. Lanik gabe uztearen beldur nintzen, eta, horregatik, guztiari bai esaten nion". Gainera, beste herri batean bizi zenez, eta garraio publikoa dena denez, askotan bere poltsikotik pagatu behar izan zuen taxia. Gaineratu duenez, "batzuetan familia oso txarrak tokatzen zaizkizu".

Etxera lanera sartu zenean argi zuen zaindutakoa hil eginen zela edo kaleratu eginen zutela. Luciaren kasuan hil egin zen. "Oso zaila izan zen", aitortu du. "Hil zen egunean bertan kalera-tu ninduten. Hilabete hartan lan egin nuenari zegokion soldata ordaindu zidaten bakarrik, ez kitatzerik ez ezer".

#### Bigarrena

Lanik gabe gelditu zen. "Paperik ez duzunean lana opatzea asko kostatzen da. Neure burua etxe barruan lan egiteko edo garbiketarako eskainiz hainbat herritan paperak itsatsi nituen. Zaintzan ari direnei jakinarazi nien lanik gabe gelditu nintzela, eta bakarren baten berri balute jakinarazteko eskatu nien. Zure beharra duen norbait sortzen den arte".

HURRENGO ORRIAN SEGITZEN DU »

## « AURREKO ORRITIK DATOR

Gaineratu duenez, "garai hartan erresidentzia txartela eskuratze-ko bidean nengoen, eta ezin nuen lanik egin". Bi hilabete eman zituen horrela. "Ipar Amerikan bizi den senide batek dirua bidali zidan pisua eta jatekoa ordaindu ahal izateko, hemen lagundu-ko ninduenik ez bainuen".

Atzera ere, Lucia Alzheimer gaitza duen pertsona bat zaintzen ari da etxe batean, biak bakarrik berriro ere. Etxeko lan guztiak egin behar ditu. "Pertsona honek nire erabateko beharra du. Haren erreferentzia bilakatu naiz. Ni ikusi eta nirekin nahi du bakarrik. Ni, ni eta ni, gainontzekoekin ezer ez". Oraingoan ere 24 orduko lanaldiak ditu. Egunean zehar atsedean orduak ditu, "baina nire beharra badute, han egon behar dut". Eta hilabetean asteburu bakarria libratzen du, ostiral goizetik igande gauera du. Orduan ateratzen da bakarrik etxetik. "Baina ez didate hots egiten". Aurreko lanean bezala, etxean berarendako logela bat du Luciak.

Bigarren kontratatzaileak lagundu zion paperak lortzen. Baina erantzuna jaso bitartean, lana hartzea behartuta zegoen. Oraingo honetan kontratua eta nominak ditu, gizarte segurantzaren kotizatzen ari da. "Paperak izanda ere 900 euro baino gutxiago ordaintzen didate. Ordukako kontratua egin didate. Lan egiten ditudan orduak kalkulatu zituzte etxekoek, eta horren arabera ordaintzen didate. Ez da lan egiten dudako kopuru erreala. Ez dituzte gaueko orduak ezta asteburukoak kontuan hartzen. Dagoena da". Kontratua duenez, zaindutakoa hilez gero kitatzerako eta langabeziarako eskubidea luke Luciak.

**Gaixotasuna, eta elikadura**

Zaintzaileak ere gaixotzen dira. Lan hartan bizpahirutan gaixotu zen. Haietako batean asko. Garbitzen ari zela erorikoa izan zuen, zerbait hautsi zuela pentsatu zuen eta ibiltzeko arazo handiak izan zituen. "Osasun txartela ikustean ea lanean nengoen galdetu zidan, eta baietz esan nion. Baina paperik ez duenez, ezin zidan laneko bazarrik eman. Atsedean hartzeko aholkatu zidan medikuak". Senideek ez zioten sendatzeko epe hori eman. "Ahal izan nuen moduan moldatu behar izan nuen". Gaixotu zen bakoitzean zaindutakoaren ondoan, lanean segitu behar izan zuen.



Mugimendu feministak zaintzaren eskubide kolektiboa aldarrikatzen du. ARTXIBOA

Soldata txikia, joan-etorriak, elikadura eta etxebizitza gastuak, familiari bidaltzen dion dirua: "iritsi zen egun bat negarrari eman niola, ezin nuen arnasarik ere hartu. Orain egoera bera bizi dut. Baina ezin dut beste sektoreen batean lanik egin", esan du etsita. Luciak lan egin duen bi etxeetan bere jatekoa erosi behar izan du. "Etxekoek erosketak egin eta senideari elikagaiak ekartzen dizkiote. Niretako ez, nire jatekoak nik erosi beharra dut. Nire gaiza pertsonalak, nireak dira. Ados. Baina etxean langile bat baduzu, iruditzen zait elikatu beharra ere baduzula".

**Erlazioak**

Bera bezala etxe batean lanean ari den lagun bakarria du Luciak.

**"PAPERIK EZ NUENEZ, EZIN ZIDAN BAJARIK EMAN. ATSEDEAN HARTZEKO AHOJKATU ZIDAN MEDIKUAK"**

**"ADINEKOAK ZAINTZEN ARI GARA, BADA KIGU NOLA EGIN. BAINA IKASTARORIK GABE, EZ DAGO LANIK"**

"Lan baldintza horietan herriko jendea ezagutzeko ezinezkoa da. Erosketak ere egiten ez ditudanez, ez dut ezta dendaria ezagutzen. Eta ezagutzeko gero zure gauzak egiteko baliatzen duzun tarte horretan izan daiteke. Baina zure lan sektoreko jendea besterik ez duzu ezagutzen". Libratzen duen ordu edo egunetan, erosketak egitera ateratzen da bakarrik.

Hiritan zaintzan ari direnen eskubideak aldarrikatzeko elkar-tekak sortu dira. Zaintzaile batzuek zuzenean sindikatuetara jo dute. Sakanara "halako informaziorik ez zaigu iritsi". Nabarmendu duenez, "Sakanan asko gara. Gaur egun lan egiten ari naizen herrian 30 zaintzaile baino gehiago daude, denak Hego Amerikakoak". Denak Luciak kontatutakoen antzeko bizi baldintzak dituzte. "Batzuek askoz ere okerragoak. Kide batek esaten zuen ezin zuela gehiago. Guk etxetik alde egiteko aholkatu genion. Mila euroren truke oso gaixo zeuden bi pertsona zaintzen ari zen. Ezin zuen ezta asteburu bat bera ere libratu. Eta libratzen bazuen, bere soldatatik bere ordezkora ordaindu beharra zuen. Bost urte eman zituen baldintza horietan. Ezin zuen gehiago. Eta nagusiek ezer esan ez ziezaioten, libre utz zezaten, badaezpada, esan zien sorterrira bueltatzen zela. Beste erkidego batean dago lanean".

**Etorkizunaz**

Luciaren ametsa da alaba hona ekartzea, elkarrekin bizitzeko. "Txikia dela egokitu daiteke. Informatu naiz eta ikastetxeetan onartuko lukete. Ekarrri eta ahal nukeen guztia emanen nioke". Ez du sorterrira bueltatu eta alabari han ikasketak ordaindu nahi: "hezuntza oso garestia da nire herrialdean".

Naziotasuna lortzeko azterketa egin beharko du, eta ikasi. Horretan Gurutze Gorriko gizarte laguntzaileek laguntzen diete. "Haiek naziotasuna lortu arteko prozesu guztiaren berri ematen digute. Azterketa tokira joaten laguntzen digute". Helburu hori lortu ondoren aldaketa egon litekeela uste du Luciak. "Erresidentzia baimenarekin baldintzak hobe ditzakezula pentsatzen duzu, beti ere, dagokizuna ordaintzen dizun lantoki bat opatzen baduzu".

Bitartean, mugimendu feministak azaroaren 30erako deitutako grebaz galdetuta, ez daki horretarako aukera izanen duen ere.

**Prestakuntza**

Luciari hasieran ez bezala, gaur egun etxeetan lan egin nahi dutenei prestakuntza ikastaro bat egina izatea eskatzen diete askotan: "Lan bila zaudela, telefonoz galdetzen dizuten aurreneko gauza da ikastaroa egina duzun. Ulergarria da ikastaroa eskatzea. Paper horrek esaten du zaintzaile gisa prestatu zaituztela". Baina nabarmendu duenez, "ikastaroko titulurik ez dugu. Ikastaroa egiteko denbora behar duzu eta etxe barruan lan egiten dugun zaintzaileek ez dugu. Ezinezkoa da, ez dizute hiruzpalau ordu emanen horretarako", azpimarratu du.

Gaineratu duenez, "adineko pertsonak zaintzen ari gara, bada kigu nola egiten den. Baina ikastaro hori gabe, ez dago lanik. Hori gertatzen ari da, askotan".

Doako ikastaroak dira, eta hiri-buruetan egiten dira normalean. Altsasun bitan egin dute. "Baina nire lanagatik ezin izan ditut egin, eta haiek egiteko aukera galdu nuen". Ez daki ikastaroak online egiteko aukera dagoen. Luciak zaintza sektorean dabilen hainbat emakumerekin alderatuta abantaila du: ikasia da, ikastea zer den badaki eta gaztea da. Adinekoek ikastea gehiago kostatzen zaiela azaldu du. "Nirekin bizi izan zen

kide bat orain Gipuzkoan ari da lanean. Esaten du berak adinagatik ezin duela ikastaroa egin. 'Badakizu letretarako oso astoa naitzela', esaten dit. Egin beharra duela esaten diot: 'ikastaroan ez izan beldurrik, ulertzen ez duzun edozer gauza, galdetu'. Lan asko galdu ditu dagoeneko ikastaroa eginga ez izateagatik". Telefono bidezko harremana dute, biek etxe barruan lan egiten baitute.

### Familia harremana

Laguna Luciaren babesa izan zen, baina hura duela lau urte bueltatu zen sorterrira. Orain bakarrik dago. Pisu kidea du lagun bakarra, besterik ez. Lagunak Luciaren senideei "hemengo egia kontatu zien. Ni ez presionatzeko eskatu zien senideei: nahikoa badu berak han". Anaia txikiendako erreferentea bihurtu da Lucia, bere ahaleginagatik. "Dirua ez dudanean argi esaten diet ez dudala". Batzuetan "ezin dut gehiago" esaten dio Luciak bere buruari. Depresioa. Eta segituan datorkion pentsamendua da: "nire beharra duten pertsonak daude, jarraitu beharra dut". Halakoetan, anaie-tan zaharrenak esaten dio bere onera bueltatzeko: "gu hemen ongi egon ahal izateko ahal duzun guztia egiten ari zara".

Alabarekin harremana bideo deien bidez mantentzen du. "Bi herrialdeen artean ordu alde handia dago eta klasetik ateratzen denean hizketatzen gara. Oso altu dago, utzi nuen umearekin ez du zerikusirik". Behin bueltatu da sorterrira, "familia eta alaba ikustera joan nintzen. Oso-oson ongi egon nintzen, topaketa ederra izan zen. Ahal izan nuen denbora gehien alabarekin partekatu nuen". Gaineratu duenez, "hemen zaudela ez duzu uste, baina hainbeste urteren ondoren familia eta alaba ikustea gerta dakizukeen gauzarik ederrenetakoa da. Niretako esperientzia onena izan da. Oso txiki zela utzi nuen, eta, atzera ere, ikusi nuenean poz handia izan zen".

Bueltatzean sentimenduak ere bizi behar izan zituen. "Berriro ere utzi beharra. Zu etorrita ere, zure bihotza sorterrian gelditzen da. Nire gorputza eta izpiritua hemen daude, baina nire arima alabak du". Galdu duenaren oso jakitun da: "haren aurreneko hitzak, aurreneko pausoak, lehen eskola eguna... Hemen zaudela izugarri galtzen duzu".

# GREBA EGUNEKO EGITARAUUA

## LAKUNTZA

08:00 Kotxe karabana, plazatik poligonora.  
10:00 Eskulanak kartulinekin, kultur etxean.  
11:00 Herri apainketa.  
12:30 Elkarretaratzea eta argazkia.  
16:30 *Cuidar entre tierras* film dokumentalaren proiektzioa, kultur etxean.  
17:30 Altsasura, eskualdeko manifestaziora abiatzeko, plazan.

## ETXARRI ARANATZ

10:30 Burrenba, plazan.  
12:00 Kontzentrazioa, plazan.  
14:00 Bazkari autogestionatua. Ondoren, dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.  
18:00 Altsasuko eskualdeko manifestazioa.

## URDIAN

Oharra: Zintzilikatu amantala balkoian.  
10:00 Elkarretaratzea, udaletxearen aurrean.  
Oharra: Denon artean pankarta eginen dute.  
10:30-12:00 Gosaria.  
12:00 Kalejira, herrian zehar.  
Oharra: Etxeko tresna bat eraman: lapikoa, amantala, zartagina, erratza...  
15:30 Bazkalostea: *Cuidar entre tierras* film dokumentalaren emanaldia,



Sakanako Greba Feminista Orokorreko batzardea. UTZITAKOIA

auzoan.  
17:00 Elkarretaratzea, udaletxearen aurrean.  
18:00 Altsasuko eskualdeko manifestazioa.

## ALTSASU

18:00 Sakanako eskualdeko manifestazioa, Foru plazatik.

## OHARRA

### Azaroaren 30eko grebarekin bat

#### GUAIXE FUNDAZIOKO LANGILEAK

Euskal Herriko Mugimendu feministak deitu duen greba orokor feministarekin bat egiten dugu GUAIXE FUNDAZIOko langileok, "zaintza eskubide kolektiborako eskubidearen" alde gaudelako. Azaroaren 30ean gure ekarpen egokiena grebaren jarraipena egitea dela iruditzen zaigu. Horretan ariko gara bakarrik eta horren isla [guaixe.eus](http://guaixe.eus) webguneak jasoko du.

ZURE KOMERTZIOA

*Gabonetako gehigarrian*

PUBLIZITATEA JARTZEKO  
AZKEN EGUNA ABENDUAK

661 52 32 45 | [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

guaixe

JOAN DEN URTEKO

SAKANAKA

Itaiak, emakumeen antolakunde sozialistak mobilizazioak antolatatu ditu Hego Euskal Herriko hiriburuetan azaroaren 30erako. *Kalitatezko lan eta bizi baldintza berdinak guztiontzat* lelopean Iruñeko Nabarrerria plazatik abiatuko da mobilizazioa 12:30ean.

**Azaroaren 30ean mobilizatorako deia egin du Itaiak ere, zergatik?**

**IU.** Emakume langileon lan eta bizi baldintzak era nabarmenean okertzen ari dira, eta desmobilizazio orokortu bat ere ari gara ikusten, hau da, egoera hau iraultzeko norabide eza. Beraz, borroka aurrera eramatea eta, horien artean, greba eguna bera, momentu oso garrantzitsuak direla uste dugu. Horrek ahalbidetuko baitu gure bizi baldintzen hobekuntzaren alde lan egiteko indarrak batzea. Baina greba egun bat ezin da ezerezean geratu: gure zapalkuntza betikotzen duen eta egiturazko pobrezia kondentatzen gaituen gizarte kapitalista gainditzeko bidean indarrak batzeko balio behar du.

**Greba, zertarako?**

**IB.** Greba langileon interesak borrokatzeko tresna bat da. Aldarrikapen sozialistak egiteko eta bide horretan mobilizatzeko eskubidea zalantzan jarri bada ere, azaroaren 30ean hainbat aldarri egon daitezkeela iritzi diogu, zaintzaren auzia problematizatu eta estrategia sozialistaren beharrezkotasuna azpimarratzeko egun gisa. Horregatik, gure aldarrikapen nagusia da guztiok kalitatezko lan eta bizi baldintza berak eskuratzea. Klaseetan banatutako gizarte honek sortzen duen gizarte eta ekonomia desorekekin bukatzea baita gure helburua.

**Zaintza lanen inguruko zer analisisia egin duzue?**

**JD.** Zaintza lanek emakume langileon zapalkuntza ezaugarritzen dute, izan familia giroko lanak emakumeon gain erortzen jarraitzen dutelako, izan zaintza sektoreko lan baldintzak oso txarrak direlako: soldata baxuak, kontratu ezegonkorak, ratio altuak... Egoera horri aurre egiteko baldintza politikoak ere oso eskasak dira, zaintza lanak modu isolatuan egiten ditugulako, antolakuntza politikorako baldintzak zailduz, eta eskubide politikoak behin eta berriz urratzen dizkigutelako. Horren adibide dira borrokan ari diren langileen kontrako mehatxuak, %100eko

# "Denentzat kalitatezko lan eta bizi baldintza berak"

**IRATI BEGIRISTAIN, INTZA UNAMUNO ETA JUNE DORRONSORO SAKANAKO ITAIKO KIDEAK** Prestaketa lanetan aritu dira Itaiako kideak aurreko egunetan, azaroaren 30ean grebarako deia eginez



June Dorronsoro Prieto eta Intza Unamuno Ruiz, Itaiako kideak. UTZITAKOIA

gutxieneko zerbitzuak greba egunetan edota greba egiteko eskubiderik eza.

**IB.** Argi dago zaintza lanak interes ekonomikoek zeharkatzen dituztela, enpresariak gero eta irabazi ekonomiko handiagoak eskuratzeko erabiltzen dituztelako. Horren adibide nabarmena da Zilarrezko Ekonomia izendatu

duten merkatu berria. Enpresariak beraien poltsikoak betetzeko lan baldintzak okertzen dituzte etengabe, eta horrekin batera, zerbitzuen kalitatea okerragotzen da. **Indarrean dauden zaintzari lotutako politika publikoak zer iruditzen zaizkizue?**

**IB.** Azken urteetan eztabaidagai izan diren proposamenen harira,

ikus dezakegun joera nagusia zaintzaren profesionalizazioak izan da, Podemosek proposatutako Erantzunkidetasunaren Planean. Laburbilduz, planaren oinarria, zaintzaren asalarizazioa indartzea da, lan horiek familia esparrutik atera eta emakumeon lan karga ez izateko eta, horretarako, "zaintza poltsa" osatu. Lan eskaintza horren hartzaileak, argi adierazten du, gazteak eta 45 urtetik gorako emakumeak izango dira. Aldiz, konkrezio horrek argi erakusten du sektoreko lan baldintzak prekarioak izaten jarraituko dutela eta ez dagoela zaintza emakumeon arduratik askatzeko borondaterik; are gehiago, lan banaketa sexuala indartu eta kapitalari etekinak lortzeko sektore berriak konkistatzeko aukerak irekitzen dizkio.

**IU.** Beraien lege proposamenek emakumeon zapalkuntzarekin bukatetik urrun, muga argiekin, kudeatzera mugatzen dira. Horren adibidea da etxeko langileen araudiaren erreforma, zeinak oinarrian, enplegatzaileen kalitatezko arrazoiak legalizatu ditu. Hainbatetan ikusi izan dugun modura, politika instituzionalak gutxi balio izan du gure egunerokoan eraldaketa positiborik antzemateko. Azken urteetan indarrean jarri diren lege eta eztabaidagai izan diren hainbat analisi sakon bat egiteko, Gobernu politika feministak aztergai liburuxka atera dugu, itaia.eus webgunean dagoena.

**Itaiak zer aldarrikatuko du azaroaren 30ean?**

**JD.** Itaiatik kalitatezko lan eta bizi baldintza berdinak guztiontzako aldarria eginen dugu.

**"GIZARTE ETA EKONOMIA DESOREKEKIN BUKATZEA BAITA GURE HELBURUA"**

Horrek berarekin dakar zaintza lanen ardura gizarte osoarena bihurtu eta lan banaketa sexualarekin bukatzeko aldarria. Baina hori ez da gure zapalkuntza betikotzen eta, hortaz, onurak ateratzen dituzten instituzio edo politikari profesionalen eskutik etorriko. Izan ere, azpimarratzeko da, gobernu politika feministak pantaila gisa erabili dituzten momentu berean, Zigor Kodea indartu, indar polizialen aurrekontuak handitu, okupazioaren ilegalizazioak legeak... aurrera eraman dituztela, emakume proletarioak egoera ezin zaugarriagoan utziz. Beraz, aldarri hori erreal bilatzeko ezinbestekoa da klase sozialik gabeko gizarte bat eraikitzeke instituzio hauen influentziatik at antolatzea, era berean, soldata berdintasunaren aldeko aldarria mahai gaineratzea, hau da, guztiok egiten dugun ekarpena aitortua izatea eta guztiok aukera berdintasuna jasotzea.

**IU.** Norabide horretan kokatzen ditugu zaintza lanetan dihardugun emakumeon lan baldintzak hobetzeko ezinbestekoak diren hainbat aldarrikapen: guztiok soldata bera edukitzea eta hori goranzko joeran gauzatzea; lan partzialetan lan orduak gehitzea eta modu jarraian ipintzea; aldi baterako kontratuekin bukatzea, lan kontratuak egonkortuz; dietak ordaintzea; ratioak jaistea...

**Aurreko asteetan antolatu dituzuen informazio batzar eta asanblada irekien helburua zein zen?**

**JD.** Greba testuinguru honetan, bi helburu izan ditugu ardatz. Batetik, zaintza auzia problematizatu eta horri aurre egiteko aldarrikapen politikoak mahai gaineratzea. Bestetik, ahalik eta emakume langile gehien antolakuntza politikora batzeko espazioak irekitzea.





ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

## Gatazkak, barne gatazka

Amaiezinak dira gaur egun albistegietan jasotzen ditugun gatazken eta gerrateen inguruko berriak. Bortitzak, latzak, kezkarriak, mingarriak, lotsamangarriak dira niretzat. Biziki (ala hilkorki) amorrarazten eta tristetzen naute, sabelaren sakonean oinazea, bihotzaren bihotzean zitzada. Zer egin honen aurrean?

Beste norabait begiratzea tentagarri egiten zait, ezin aldiz, ekidin nobaren hotsa, albistearen zartada mutur parean eta hildakoen garraxia ariman.

Zer egin honen aurrean?

Aspaldian badakigu zeinen manipulazalea den boterea, eta nolako ustela dagoen bizi garen sistema. Frustragarria eta nekagarria egiten zait sistemaren kontra jotzea, hala ere hain beharrezkoa sentitzen dut bakea...

Claudio Naranjok parekotasun bat egiten du mundua eta norberaren artean. Sistema patriarkalak baduela patriarka txiki bat gutako bakoitzean dio (ez gara alferrik jai sistema honetan). Beraz, teoria honen arabera, denok badugu esplotatzaile bat gure baitan, agintari bortitza eta gure beste parteen gainetik boterea hartzen duena. Baina ez dugu soilik patriarka, baita aita maitekor bat, baloreekiko maitasuna eta bizitzako bide zintzoa erakusten diguna ere badugu.

Zera ere badio, gure baitan ama bat bizi dela, maitatu egiten duena baldintzarik gabe eta gure barne zauriak besarkatzen dituena, arrazoia dena delakoa izanda ere.

Gure barne umea aipatzen du era berean Naranjok, gozatzea gustuko duena, jolastea, mugitzea, aske izatea, besteekin gorputzaren bidez harremantzea...

Barne aita, ama eta umeak zentzu sinbolikoan hartuta, ez literalean, noski. Ez nuke nahiko zentzua estereotipo eztabaida baterantz joatea...

Beraz, munduaren isla gure baitan dugula ados nago eta honek ate bat irekitzen dit, munduko bakeari modu mikroskopikoan laguntzeko: Nire barneko bakea jorratuz, landuz, zainduz eta egunero, egunero arreta eskainiz, munduko bakeari nire harri koskorra eskaintzen diot. Ahaztu gabe, noski munduan gertatzen dena eta nire esku dagoen hura egiteari utzi gabe, noski.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Gure helduen kontakizunak herrietan

#### SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuetako etxez etxeko langileek adineko jende asko ezagutzen dugu eta hona gure herrietan entzundako herriko kontakizun batzuk ekarri nahi ditugu.

Helduek kontaktzen digutenez, bizitzak eta lanak lotura handia zuten naturarekin, urtaroeekin eta eguraldiarekin.

Bizitza eta lana oso ezberdina ziren gaurko egunekoekin konparatuz. Abeltzaintza eta soroen eta larreen lanak nagusi ziren, etxeko aldamenekoen laguntza eta elkarbizitza oso preziatua zen, eta erlazio sozialak

sendoak eta alaiak ziren. Hori hala dela hainbat istoriok, bitxikeriak eta esaera zaharrek erakusten digute.

Ilargiaren faseek garrantzi handia zuten hazia ereiteko momentuan nola uzta biltzeko momentuan. Zuhaitzak botatzerakoan ere kontuan hartzen zen, eta fase ezberdin batean botatzen zen haritza edo pagoa baldin bazen.

Txerriak etxe guztietan hiltzen ziren. "Zenbat gose kendu duten" diote helduek. Honetarako ere, hotza handia egin behar zuen, eta hego haizea ez ibiltzea garrantzi handikoa zen.

Soroan ari zirenean erlojurik ez zuten behar zer ordu zen jakiteko. Eguzkiaren posizioa ikustearekin nahiko. Adibidez, Beriain menditik ateratzen zenean, bazekiten zein ordu zen. Horrela, batek besteari esaten zion "Hi! Hamaiketako hartzeko ordua duk/dun!". Bizitza lasaigoa zen

gaurkoarekin konparatuz. Ez ziren minutura bizitzen, gaur egun bizi garen bezala.

Elurra maiz eta asko egiten zuen, eta honi lotuta esaera zahar asko daude. "Santu guztien egunerako mendian elurra, San Andres egunerako lurra eta Santa Katalina egunerako elurra sukaldian".

Badirudi alaitasunarekin bertso antza edota errima erabiltzen zutela, kontra egiteko umore pixka bat sortzeko asmoz.

Horrela kontaktzen digute gertatzen zela. Esaera horiek belaunaldiz belaunaldi mantendu dira gaur egunera iritsi arte.

Helduekin gure jakinduria aberastu egiten dugu, guk bizi duguna aurretik beraiek bizi baitzuten. Irakasgai interesgarriak dira.

Istoriok biltzen eta kontaktzen jarraituko dugu!!!

## GUTUNA

### Jon Etxabe. euskaldun, abertzale eta gorria

#### JUAN KRUZ ALDASORO JAUREGI ETA SONIA ULAIAK

ETXARRIKO EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN

1933. urtean Elgoibarko Altzola auzoan sortua zen Jon Etxabe Garitazelaiak uztailaren 31n utzi gintuen, bere bizitzan ibilbide emankorra egin ondoren. Apala, xumea, Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokalaria nekagaitza.

1970. urtean egin zen Burgosko auzian heriotza zigorra ezarri zion Joni Francoren Erregimenak. Euskal Herrian eta

nazioartean piztu zen elkartasun uholdeak lortu zuen heriotza zigorra bertan behera uztea, baina 1977. urteko sasi Amnistia arte preso egon zen Jon. Artean apaiza zenez, Zamorako apaiz kartzelan lehendabizi eta gero Lleidako mojen komentu batean egon zen gatibu. Berak esaten zuen bezala, bi kartzelero izan zituen, Franco bata, eta Vaticanoa bestea.

Bere irakasle lanetik erretiroa hartu ondoren iritsi zen Etxarri Aranzera 1994an, bere bikotekide Maria Luisa Ruiz Aranarekin, frankismoan urte luzez erreprelatua izan zena berau ere. Hemeretzi urtez bizi izan dira Etxarrin. Aztarna sakona utzi dute

herrian beraien aldarte umilagatik eta herriarekiko erakutsitako konpromisoagatik. Presoen aldeko lana lehenetsi bazuen ere, Jonen itzalak eremu zabalagoa hartu zuen: euskara eta kulturaren alde lan egin zuen, Sasoa erretiratuen elkartearen aitzindaria izan zen... saltsa guztietako perrexila zen Jon. Beti umoretsu, beti ausart eta irekia ideia berriak hartzeko; beti leial eta fina eguneroko zereginetan.

"Eutsi Ezpalari!!!" hitzak ziren bere "guda oihua". Jonen ereduaren enborretik ateratako ezpalak elikatuko dute Herri Askeen SUA. Igande honetan izanen dugu goango Etxarri Aranzera.

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Felix Altzela Irriarte

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
[kiorlak@guaixe.eus](mailto:kiorlak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**

# Mank-en batzorde bakarria dago eratzeko

Sakanako Mankomunitateko euskara, kirola, berdintasuna eta kulturartekotasun batzordeak eratu dira dagoeneko. Aurki hondakin zerbitzuko batzordea eratuko da. Orain arte ez da halakorik egon

## SAKANA

Legegintzaldi berria hasita, eta udalek martxa hartuta, Sakanako Mankomunitatea egituratzen hasi da ere. Eskaintzen dituen zerbitzuei dagozkien batzordeak eratzen hasiak dira. Ibarreko erakundeko presidente Aitor Larrazak Carrerak azaldu duenez, "legegintzaldi honetan saiatu gara batzordeen ardura guztia lehendakariaren bizkar ez uzten. Udalak Sakanako Mankomunitatearekin duten inplikazioan gehiago estutu nahi izan dugu eta, horregatik, batzordeen lehendakariak ez dira nire bizkar egonen, hainbat udaletako zinegotzien eskutan baizik". Larrazak



Euskara batzordearen eratze bileran parte hartu zutenak. MANK

gaineratu duenez, "batzorde lehendakariak horiek banatzen ere saiatu gara eskualde ikuspegi edo oreka bat mantentzen, ibar guztia islatzeko".

Irizpide horiek kontutan hartuta eratu dira batzordeak. Hala, Arakilgo zinegotzi Irantz Escudero Jaka da berdintasun batzordeko burua. Kirol batzordearen ardura, berriz, Mateo Berastegi Astiz zinegotzi arbizuarrak du. Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko presidentea Naroa Anso Iriarte etxarriarra izanen da. Bestetik, euskara batzordeko lehendakaria Ainize Ibargutxi Iparragirre izanen da. Lau batzorde horietatik bakarrean, euskarakoan, elkartzen dira udaletako eta gizarte eragileetako ordezkariak.

Eratzeko dagoen hondakin batzordearen lehendakariak Larrazak berak hartuko du bere gain. "Batzorde berri hori sortu dugu udalen eta mankomunitatearen arteko koordinazioa eta hartu-eman zuzena beharrezkoa ikusten genuelako. Batzordeak, besteak beste, estrategia zehazteko balioko du", azaldu du Larrazak.

## Ikerketa eta Garapeneko 350.000 euro jaso dituzte

Ibarreko lau enpresak eta fundazio batek gobernuaren laguntza jaso dute proiektuak garatzeko

## SAKANA

Industriako eta Enpresen Transizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak 2023ko Ikerketa eta Garapen proiektuetarako laguntzen deialdia ebatzi du. Haren bidez 12,4 milioi euro banatuko ditu, eta guztira 81 proiektu finantzatzeko erabiliko dira. Dirulaguntza jasoko dutenen artean Sakanako lau enpresaren eta fundazio baten egitasmoak daude. Guztira 350.551,20 euro jasoko dituzte. Proiektu horiek gehienez 24 hilabetez garatuko dira, 2025era arte.

Lagundutako egitasmoen artean dago Hirudi Sistemas 3d SM. Irurtzango enpresak sentsibilitate handiko kako robotikoa garatzeko 87.471,54 euro jasoko ditu. Bestetik, Hydro Extrusion Spain SA aluminio birziklatuaren ehuneko handia duten aluminioetan laser nanoegituraketako prozesuak aztertzea, akabera estetiko disruptiboak eta karbono-aztarna murriztuak dituzten Linea Zuriko osagaiak lortu nahi du. Irurtzango enpresaren egitasmoak 58.854,60 euro jasoko ditu. Uharteko Arakilgo Industrias Laneko LSA enpresak eskakizun handiko aplikazioetarako torloju adimenduna (i-TOR) garatzeko 78.325,99 euro jasoko ditu.

Felipe Lezea fundazioak, berriz, gailu analogiko-digitala garatuko du, narriadura kognitiboa duten pertsonen funtzio kognitiboak indartzeko, datuen erregistroaren bidez eta Adimen Artifizialaren bidez egokitutako jardueraren pertsonalizatuak sortuz. Altsasun egoitza duen fundazioak 8.753,70 euro jasoko ditu. Azkenik, Altsasuko Alai Termodormados SLUK termokonformazio moldearen kontzeptu berria sortuko du, elikagaien sektorerako erretiluen produkzioan aplikatzeko. Altsasuko enpresaren egitasmoak 117.145,37 euro jasoko ditu.

## Edukiontzia berdeko hondakin %84,21-k ez zuen han egon behar

Altsasuko edukiontzia baten azterketa "emaitza txarra" dela esan dute Hondakin Zerbitzuak

## SAKANA

Pantxika Lamur clownaren laguntzaz, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak edukiontzia berde bat Altsasuko Foru plazan hustu zuen. Lamurrek han barruan zeuden hon-

dakinak banatu zituen eta emaitza honakoa izan zen: %4,5 ontzi arinak, %6,85 papera eta kartoia, %42,65 organikoa, %30,21 arropa eta %15,78 errefusa. Hau da, azken hondakin mota hori zegoen bakarrik bere tokian, gainontze-

ko %84,21 ez; izan ere, Altsasun ontzi arinak, papera, organikoa eta arropa bereizita jasotzeko edukiontzia baitaude. Hondakin banaketa egin ondoren, Lamurrek Altsasuarren artean inkesta egin zuen, haien iritzia jasotzeko.

Lamur heldu den astean Etxarri Aranazko eta Irurtzango azoketan izanen da, baita Arakilko ere. Etxarri Aranazkoen larrialdi guneko edukiontzia bat hustuko du plazan eta Irurtzunen eta Arakilgo herri batean,

berriz, kalean dagoen edukiontzia berde bat.

Zerbitzuetik gaztigatu dutenez, "beharrezkoa da hondakin bakoitza behar bezala bereiztea, eta dagokion edukiontzian uztea material horiek birziklatu eta berrerabili ahal izateko. Bestela, hondakindegira birziklaziozko hondakinak botatzen dira. Eta zenbat eta gehiago bota orduan eta gehiago ordaindu behar dugu hondakindegia erabileragatik". Nafarroako Hondakin Funtzak ordaindu du ekimena.

**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS**

Abenduaren 3an  
17:00etan  
Irurtzango kiroldegian

Sarrerak salgai:  
Pikuxar  
Estankoa  
Marxueta  
Maimur (Leitza)

airpea

ez gara jaitziko

**BIKAIN GARAJEA**

Mekanika  
Elektromekanika  
Serie 100  
pintura prototipoa  
Autokarabana eta  
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

**FLORES**

Utubar industrialdea Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistorra



# Hauteskunde eguna Zuhatzun eta Iturmendin

Igandean bateko kontzejua eta besteko udala berritzeko hauteskundeak eginen dira. Aurreneko herrian hautagai bakarra dago, bigarrenean, berriz bi hautagaitza daude; bata iturmendiarrek osatutakoa, bestea Aulki Txuriak hautagaitzarena

## ZUHATZU / ITURMENDI

Bi toki erakunde berritu gabe gelditu ziren maiatzaren 28ko hauteskundeetan: Zuhatzuko Kontzejua eta Iturmendiko Udala. Bi herrietan ez zen hautagaitzarik aurkeztu udaberriari; bai, ordea, sei hilabeteren ondorengo deialdirako. Zuhatzuk 50 biztanle baino gutxiago dituenez, kontzejuko presidentea aukeratu dute bakarrik. Eta ardura errepikatzen prest aurkeztu da Juan Pedro Arregi Sarasa. Iturmendin herritarrek ezusteko handia hartu dute udal hauteskundeetan bi zerrenda aurkeztu direlako: iturmendiarrek osatutako Herri Elkarlana eta Escaños en Blanco edo Aulki Txuriak.



Iturmendiko Herri Elkarlana hautagaitzako kideak. UTZITAKOIA

## Iturmendiko hautagaitzak

Herri Elkarlana hautagaitzak azaldu duenez, "Iturmendiren alde lan egiteko gogotsu" daude, "erronka zaharrei eta etorkizunekoie eusteko borondatearekin eta bizilagunekin herriarendako elkarlanean lan egiteko gogo biziz!" Herritarrei aurkeztutako programa hiru arlotan ardatz dute. Alde batetik, ingurumena eta energiari dagokionez, bero sarearen egitasmoari berriro helduko diote. Horretarako, biomasa energia berriztagarri gisa hartu eta haren bidez etxebizitzetako berogailua eta ur sanitarioa eskainiko du udalak. Horrekin batera, mendien kudeaketa jasagarria bulkatu nahi du.

Hirigintza eta herri garapena da hautagaitzaren bigarren lan ildo. Horren baitan hainbat egitasmo zerrendatu dituzte: frontoiko teilatua konpontzea; Santa Marina kalea berritzea; estolderia sistema berrikustea eta mantentze lanak egitea; herriko etxebizitzaren egoera aztertu, herritarren etorkizuneko beharrak aurreikusi eta haien araberrako etxebizitza aukerak eskaini eta zahartzaroaren erron-

## HAUTESKUNDE MAHAITAN MAIATZEKO PERTSONA BERAK EGON BEHARKO DUTE


kari aurre egiteko baliabideak aztertuko dituzte.

Azkenik, herritarrei zuzenduriko zerbitzuen arloan, Herri Elkarlana hautagaitzak honakoak ditu buruan: egur loteak ateratzeko enpresa baten zerbitzu eskaintzea; kirol azpiegituren aukerak aztertu eta espazioak egokitu; auzolanak berrantolatzeta; kultur batzordeen dinamizazioa; udako ludoteka eta haur aisialdi zerbitzuaren eskaintza eta kudeaketa egitea eta herritarrekin komunikazioa indartu

Iturmendiko Udaleria aurkeztu den beste hautagaitza Aulki Txuriak da. Adierazi dutenez, "hauteskundeetan abstentzioa, boto baliogabea edo boto txuria, gehien goaren jarrera izanik, erakundeen barruan ahotsik gabe geratzen dira. Guk ordezkariak ematen diegu ahots kritikoei, eserleku hutsen itxuran". Izan ere, hori

baita haien programaren puntu bakarra: "lortuko genituzkeen eserlekuak hutsik uztea; horrela, inork ez luke hartuko ez dagokion dirulaguntzarik edo botere politikorik".

Hauteskunde partzialak direnez, hau da, maiatzaren 28koen jarraipena, hauteskunde mahai berriak aukeratzeko ez da zozketa berririk egin. Beraz, maiatzean mahaiko presidente eta bokal izan ziren pertsona berak izanen dira Hiriberri Arakilgo kontzejua etxean eta Iturmendiko udaletxean egonen direnak.



Umeak jolastean eta ama talde bat Ziordian. ARTXIBOIA

## Pediatria zerbitzua osatuta

Hilaren 15az geroztik lanean ari da plantilla osatzeko falta zen pediatria

### ALTSASU

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko osasun eskualdean pediatria zerbitzua bere onera bueltatu da. Azaroaren 15az geroztik pediatria bat lanaldi osoan ari da. Pediatrak ez du berari dagokion plaza betetzen, baina Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak jakinarazi duenez, denbora luze egonen da Burunda mendebaldean lanean. Hala azaldu zioten foru administratioko osasun arduradunek Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformako kideei. Joan zen aste hasieran bilera egin zuten, eta egoera hobetuko ez balitz mobilizazioetara bueltatzeko aukera mahai gainean zutela jakinarazi zuten plataformako kideek. Ez da halakorik behar izan, bileratik langilearen etorreraren berriarekin atera ziren. Eta hitz emandakoa bete zuten Osasun Departamentuak.

Pediatriako lanaldi eta erdi dagokio Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko osasun eskualdeari. Joan zen urteko abendu akaberan Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia pediatrarik gabe gelditu ziren. Eta osasun eskualdean pediatriarik ez zegoelako, plataformak eta guraso talde batek kontzentrazioak abiarazi zituzten otsailaren 24an. Azkenean, apirilaren 11n hasi zen bat lanean. Garagarriaren hasieran, pediatria bat lanaldi murriztuarekin hasi zen lanean. Lanaldi osoan zegoen pediatria bajaran zegoenez, lanaldi erdian zegoen pediatriak ezin zuen 1.200 haur inguru artatu. Altsasuk osasun eremuan pediatrarik egon ez den bitartean haiekin lan egin beharko luketen erizainak arduratu dira umeen kasuak bahetzeaz eta, ondoren, batera eta bestera bideratzeaz. Pediatrak 15 urte bitarteko ume eta gaztetxo osasunaz arduratzen dira.



# Lanbide Heziketan, ekintzailletza sustatzen

Hezkuntza Departamentuaren Inizia programaren bidez ikasleek ekintzailletza zer den ikasi eta eskuragarri dituzten baliabideak ezagutzen ari dira praktikaren bidez. Klinikako eguneko zentroko martxa aztertu ondoren, hiru ideia garatzen ari dira

## SAKANA

Europako Ekintzailletza Ikasgeletarako Planaren zuzendarua betez, Hezkuntza Departamentuak Inizia programa martxa jarri zuen duela bi ikasturte. Hirugarren honetan dagoeneko Lanbide Heziketako 25 zentro dira parte hartzen ari direnak, tartean Sakana Lanbide Heziketa Institutua. Programan parte hartzen duten ikastetxeetan ekintzailletza ikasgelak sortu dira, ikasleriak ekintzailletza zer den jakin dezan eta eskuragarri dituen baliabideak ezagutu ditzan. Horrela, lanbide ildo horri ekin edo ez jakinen dute ikasleek, baita bere bizitzarako duen aukera bat dela eta nola erabil dezakeen ikasi dezake.

Programaren helburua ez da proiektu bideragarri osatu bat eraikitzea, baizik eta gaia ingurune kontrolatu batera ekarri ondoren espermentatu eta ezagutzea, arriskurik izan gabe ekintzailletzaren esperientzian.



Ikasleak iritziak elkartrukutzen. UTZITAKOIA

Helburua da ikasleriak ekintzailletzan espermentatu ahal izatea nolakoa den bere sektorea, zein tresna edota baliabide erabil ditzakeen, zein entitate eta erakunde existitzen diren esparru horretan, eta abar. Laburbilduz,

auto enplegua lan munduan txertatzeko aukera eskuragarri modura aurkeztea.

## Praktika

Inizia programan, alde batetik, mendekotasun egoeran dauden

pertsonen laguntza emateko erdi mailako zikloko 2. mailako ikasleak daude, Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoarekin elkarlanean ari dira. Ikasleak, bi taldetan banatuta, eguneko zentroan egon ziren zer-nolako martxa zuen eta zer behar egon zitezkeen behatzen. Zentrotik ikastetxera bueltan ikusitakotik negozio ideia zer bihur zitekeen aztertu zuten ikasleak. Hiru ideia bururatu zitzaizkien. Batetik, disfagia duten pertsonen ura errazago edateko edalontzia. Bestetik, dardara duten pertsonen bazkaltzeko garaian jatekoa barratu dezakete. Hori eragozteko azpil edo erretilu berezia sortzea bururatu zaie. Erretiluak edalontzi, plater eta mahai tresnendako tokia izanzen zuen, eta azpilean txertatuta egonen lirateke, finkoago. Azkenik, pertsona batzuen autonomia sustatzeko asmoz, sardexkari heldu ezin diotenek berriro hartu ahal izateko mahai tresnari euskarri bat jartzea. Horrek pertsonak bakarrik bazkaltzea lagunduko luke.

Pentsatutakoaren paperezko maketa modukoak egin zituzten. Eta haiekin eta ideiekin ikasleak institutu bereko Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi zikloko 1. mailako ikasleekin bilera egin zuten. Aurrenekoek buruan zutenaren berri eman eta gailuak nolakoak izan behar zuten deskribatu zieten maketen laguntzaz. Informazioa jasota goi zikloko ikasleek

ordenagailuan diseinua egingen dute. Hura egin ondoren, bi ikasgeletako ikasleak elkartu eta erabat zehaztuko dute diseinua. Hura eginda dagoenean hiru dimentsiotan inprimatuko dute, ikastetxean bertan. Azpila handia denez, ikastetxean ezin baidute inprimatu Dinabiden egingen lukete.

Programaren hurrengo pausoa izanen da inprimatutako produktu horiek klinikara eraman eta erabilgarriak diren probatzea. Proba hori egin ondoren, merkatuan bideragarria den aztertuko dute erdi mailako zikloko ikasleek. Hau da, teknikoki egingarria den eta merkatuan irtenbidea duen ikertuko dute. Eta, testaren ondoren, beharren arabera unitate kopuru jakin bat egingen dute. Azken horretaz, goi zikloko ikasleak arduratuko dira. Ikasketa proiektu bat denez, produktuengatik ez dute ezer kobratuko.

Ikasleak Humani elkartearekin aritu ziren 2022an. Malawirako ur ponpa eramangarri eta bizikletarekin egokigarri baten proiektua landu zuten. Afrika hegoaldeko herrialdeko ikasleekin harremanetan izan ziren.

## INSTITUTUAK DEPARTAMENTUAREN AITORTZA JASO DU IAZKO PARTE HARTZEAGATIK

## DUELA 25 URTE...



## Markotegiren 'Izarratu' kalean

Maria Markotegiren azken liburua, *Izarratu*, Txalaparta argitaletxeak argitaratu zuen. Alemanian bizi zela, Berlingo Pergamo museoarekin "arras txundituta" gelditu zen etxarriarra, eta hari buruz zerbaite idaztea erabaki zuen. Haurrei zuzendutako liburua zen, margolanez gozatzen erakutsi eta artelanak ulertzea zein erraza den ikusarazteko asmoz idatzitakoa. Idazleak hiru urte zeramatzan herriko liburutegian lanean.

## Bideolari finalistak

Zarautzen egin zen *Arnasetik* bideo sormen lehiaketaren sari banaketa asteazkenean. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako kategorian finalista zen Arbizuko eskolako Oihan Erdozia Alvarenga, Amets Martiarena Martiarena, Maren Mendinueta Perez de Villareal eta Szabolcs Ciprian Loatiren lana. Ez zuten saria lortu, baina bai "esperientzia polita".



# Emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurka

Ibarreko udalek eta Sakanako Mankomunitateak adierazpena onartu dute. Emakumezkoen kontrako indarkeria motaren baten lekuko izanez gero hura geldiarazteko deia egin dute. Baita antolatzen diren jardueretan parte hartzera ere

## SAKANA

Emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurkako eguna da azaroaren 25a, bihar. Hala izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak batzarrak duela 24 urte. Izendapen horren bidez nazioarteko erakundeak "emakumeen kontrako edozein indarkeria mota desagerraraztea" aldarririkatu zuen. Egun hori dela eta, Nafarroako Berdintasun Zerbitzuek bat egin dute eta kanpaina prestatu dute. Harekin bat egin dute Nafarroako 140 tokiko erakundeek, tartean ibarreko 15 udalek eta Sakanako Mankomunitateak. Toki erakunde guztiek emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurkako adierazpenarekin bat egin dute.

Toki erakundeek adierazi dutenez, "emakumezkoen kontrako indarkeriak egiturazko izaera du eta agerian jartzea beharrezkoa da". Nabarmendu dutenez, emakumezkoen kontrako indarkeria "giza eskubideen urraketa argia da, kausak sistema patriarkalean oinarritzen dituena, desberdintasunak betikotzen dituen eta mekanismo eta praktika sozial eta kulturalen bidez erreproduzitzen den botere egitura batean oinarritzen dena, emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetuz eta normalizatuz".




Nafarroako toki erakundeek adierazpen aurkezpenarekin izandako sakandarrak. MANK

Jakinarazi dutenez, Nafarroan joan zen urtean %25 gehiago izan ziren sexu askatasunaren kontrako auziak, eta %94 gehiago sexu erasoak. Era berean, 16 urtetik beherako aurkako sexu erasoak %166 igo ziren, aurreko urtearekin alderatuta.

Adierazpenari atxikimendua adierazi dioten 140 toki erakundeek iritziz, "zifra horiek adierazten dute emakumeen kontrako indarkeria, eta zehazki sexu indarkeria, gure gizarteko arlo guztietan dagoela, eta badakigu askotan ez direla salatzen eraso

horiek. Indarkeria hori bikote-harremanetan, etxean, eremu digitaletan, kirolean, politikan, komunikabideetan, lan-esparruan, elkarteetan, aisialdiko guneetan, kaleetan... agertzen da". Nabarmendu dutenez, emakumezkoen kontrako indarkeriaren oinarriak dira, besteak beste: "jarrera matxisten normalizazioa, diskurtso negazionistak eta gizonen konplizitate edo axolagabekeria. Horiek denak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko feminismoak lortutako aurrerapeneki-



\*Gorde zenbaki hau

ko erresistentziak dira".

Toki erakundeetatik nabarmendu dutenez, "emakumeen kontrako indarkeria jokamolde askoren normalizazioaren bidez betikotzen da. Egunero

ikusi eta entzuten ditugu hone-lako komentarioetan: 'orain liggatzeko kontratu bat sinatu behar da', 'muxu bat besterik ez zen izan, ez da hainbesterako!', 'ezin zaizue ezer ere esan, dena da iraingarria zuendako!', eta abar". Halako esamoldeak "indarkeriarekin konplizeak diren diskurtso negazionisten adibide batzuk besterik ez dira, eta berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko lanean jarraitzeko eskatzen digute, gizonen zeregin horretan duten inplikazioari bereziki eta zuzenean dei eginez". Horregatik, toki erakundeetako ordezkariak "beharrezkoa" jo dute "denok konpromiso aktiboa hartzea, matxismoa betikotzen duten jokamolde normalizatuak, norberarenak edo besteenak, identifikatuz eta desagerraraziz. Bere-ziki saihestezina da gizonen aurrerapauso bat ematea eta egoera horiek betikotzen dituen konplizitatearekin bukatzea".

## Hartutako konpromisoak

Nafarroako Berdintasun Zerbitzuen adierazpenarekin bat egin duten toki erakundeek arbuioa adierazi diote "emakumeen kontrako indarkeria mota guztiekiko, edozein arlo eta testuingurutan" izan da ere. Aldi berean, Administrazio Publiko diren aldetik, ibarreko hamabost udalek eta Sakanako Mankomuni-

tateak konpromisoa hartu dute "emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko lanean jarraitzeko, bai eta tokiko entitateen agenda politikoan emakume eta neskatuen indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea bermatzen duten neurriak txertatzeko ere, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin eta herriarrekien elkarlanean".

Toki erakundeek haien ardura gisa hartu dute "emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatuta jokatzeko tokiko protokoloak bermatzeko, sentibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren, esku hartzearen eta erreparazioaren arloetan lan iraunkorra eginez". Konpromisoa adierazi duten "erasotutako edo eraildako emakume eta neskatuekin, baita horien seme-alabekin ere, sexu indarkeriari aurre egin behar izan baitiete".

Erakundeak "interpelazio zuzena" egin diete Sakanako "adin guztietako gizonen, konpromisoak har ditzaten eta emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka aktiboki ager" daitezen. Azkenik, toki erakundeek herriarrei deia eta aitortpena egin diete, "emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko bidean haien arbuioa eta konpromisoa adierazten jarrai dezaten, indarkeria horren agerpen guztiak salatzen, haren oinarri diren eta emakumeen eta nesken bizitza eta askatasuna baldintzatzen duten jarrerak agertaraziz".

**AURTEN, IRAILERA ARTE, 36 SALAKETA JARRI DITUZTE SAKANAN. JOAN ZEN URTEAN 41 IZAN ZIREN**



**Eskuragarri abenduaren 21etik aurrera**

**HANDIA**  
Esne gaina / Krema

**ERTAINA**  
Esne gaina / Krema / Trufa

**TXIKIA**  
Esne gaina / Krema / Trufa

**eta GLUTEN GABE ere bai**

ZONAKIN 1964- GEROZKOR

**Amaya**

**OKINDEGIA**

🍩 | 🍰

**ALTSASU**  
678 323 403  
Iruña Hiribidea, 48  
948 468 026  
Zumalakarregi Plaza, 3  
670 389 017  
San Juan Kalea, 50

948 562 185  
Oitadiko Kristo Deuna, 19

**UHARTE ARAKIL**  
691 83 41 36  
Mandikoa, 3

**VITORIA-GASTEIZ**  
Postas, 33  
945 148 368  
Arriagako Atea, 12

**ETXARRI ARANATZ**  
948 461 660  
Kale Naguasía, 4

**OLAZTI**  
948 468 755  
Orreaga Kalea, 1

**ARAIA**  
945 314 572  
Andoni Urrestarazu, 3



Loreto Vilella eta sakandar bat okupazio terapia egiten etxe batean. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

# Sakana Saria jaso du Josefina Arregi klinikak

Adineko pertsonen suspertze funtzional eta kognitiborako klinikaren etxez etxeko zerbitzu geriatrikoa da saria jaso duena. Hala erabaki du Sakanako Sozioekonomia Behatokiko kideek osatutako epaimahaiak

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Josefina Arregi klinikako ordezkari batek jaso zuen Sakana Saria. Osasun erakundeko gerente Angel Gardachal Ausejok esan duenez, "guretako edozein sari, gure lanaren edozein aitor-

tza, garrantzitsua, zoragarria da; energia ematen digu". Baina sari horrek bi arrazoirengatik egin die ilusio handiagoa: "bategatik, Sakanaz ari delako. Gu Sakana gara eta Sakanarako ari gara. Felipe Lezeak klinika

Iruñean eraiki zezakeen, laguntza gehiago jasoko zituzkeen. Baina berak Altsasun eraiki zuen, Sakanako gizarteari eman ziona bueltatu nahi ziolako; hala dago jasoa estatutuetan". Gardachalek gaineratu duenez, "sariak, bes-

tetik, klinikaren ibilbidea, gauden momentua, aitortzen badu ere, gure etxez etxeko zerbitzuari erreparatzen dio".

Sakana osasun eskaintza zertu eta adinekoendako propio zuzendutako zerbitzurik ez zegoela ikusi zuten klinikak. "Premia bat dagoenean, medikuaren bidez Iruñeko ospitaleko geriatría sailera bideratzen dute. Hara joan beharra dago, hainbat eragozpen daude. 2019an egin genuen estrategia planean pazientearengana hurbildu beharra jaso zen. Beraz, horretarako zerbait egin beharra genuela pentsatu genuen". Iruñeko eta Gasteizko zentroak zabaltzeaz aparte, demenziarik edo kognizio narriadurarik ez duten sakandarrendako klinikak sortutako zerbitzua da saritutakoa. "Egon daitezke pertsonak klinikara nola etorri ez dutenak. Bestetik, klinikak estigma bat du: jendeak ez du etorri nahi, burua primeran dutela diote", azaldu du Gardachalek. "Guretako zerbitzua martxan jartzea mugarrria izan zen. Edozein behar duen pazienteei zuzenduta dago", gaineratu du.

Zerbitzuaren publizitaterik ez zuten egin, eta kontzerturik ez duenez, ordaindu beharrekoa da. "Susmoa zena, urteen poderioz, benetako premia dela ikusi dugu. Urte 600 bat esku hartze eginez bukatuko dugu. Kontuan izan ibarrean 65 urte baino gehiagoko 2.000 bat pertsona egonen direla. Izugarria da". Jakinarazi duenez, "saiatu ginen etxez etxeko zerbitzua hitzartzen; Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen eta osasun etxeen bidez egiten saiatu ginen. Oraingoz ez dugu lortu". Baina Nafarroako Gobernuarekin harremanetan dago klinika, "sinatuko dela espero dut, eskaria badago eta".

## Aitortza

Klinikak 60 bat langile lan egiten dute. Azken urteetan hainbat arlotan hobekuntza izan da. Lantaldean urte luzez aritutakoak daude. "Klinikaren garai txarrak bizi dituzte. Zailtasun ugari aurre egin behar izan diete eta klinika zabalik mantentzeko borroka egin behar izan dutenak dira. Oinarrian lan bera eginez langile horiek beste klinika bat ikusten ari dira. Haien lana aitortua da. 'Zeinen ongi. Bazen garaia!' sentimendu hori dute", azaldu du gerenteak. Gaineratu duenez, "bestetik, azken urteetan

lanean hasi direnak daude. Haiengan harrotasun sentimendua nabaritzen da: 'Nafarroa guztian egiten ez den zerbait egiten ari naiz'. Badago hona lan egitera etortzea eskatu digun jendea ere. Lehen kontrakoa gertatzen zen. Zergatik heldu dira: 'han gauzak ongi egiten dira, toki guztietan egin beharko lirateke horrela'".

Garai batean klinikaren sona ibarrean zen ezaguna bakar-bakarrak. Gaur egun marka ezaguna dela baieztatatu du gerenteak. "Osasunbideak San Juan de Diosekin eta klinikarekin hitzarmen berezi bana sinatu nahi izatea gure profesionalen lan onaren aitortza da".

## Etorkizunaz

Klinika digitalizatzeko lanean ari dira. Horrekin batera, energia eraginkortasuna hobetzeko helburua dute. Osasun arloan, berriz, heldu den urteko helburua da ospitalea handitzea da. Lanak baliatuko dituzte ospitaleko zatiak berritzeko. "Ondorioz 90 edo 100 langile izanen gara". Aldi berean, ikerketa lana egingen dute. "Beste batzuekin batera, adimen artifiziala erabiliz psikologia estimulazioa lantzeko proiektua dugu". Klinikak irakaskuntza unitatea duela urte pasa sortu zuten. "Gureen moduko pazienteak gobernatzeko prestakuntza premia dagoela ohartu gara". Bestalde, klinikaren patronatuak hala eskatuta, gizarte arloan ere eragin nahi dute. Gizarte bazterketa bizi dutenei zuzenduta dago Rural Domus proiektua: "beltzean lan egiten dutenak, lanik ez dutenak, edo paperik ez dutenak. Profesionalizatu nahi ditugu, hobetu dezatela, eta, aldi berean, autoenplegua sortzen laguntzea".

Estrategia plana 2022ra artekoa zen, baina pandemia tarteko, urte batez luzatu dute. Gardachalek jakinarazi duenez, "heldu den urtean etorkizunaz hausnartuko dugu: zer nahi dugu erakundeaz, nola egiten dugu jasangarriagoa, nola laguntzen ditugu pertsonak". Bitartean, eraberritu duten eguneko zentroa bertatik bertara ezagutzeko ate irekien jardunaldia dago larunbatean, 10:30ean.

**"KLINIKAREKIN HITZARMENA SINATU NAHI IZATEA GURE PROFESIONALEN LAN ONAREN AITORTZA DA"**

MUSIKAZ BLAI

Ainara ELBUSTO ARTEAGA

Kirolaria / ZURUKUAIN

Ezetz asmatu zeintzuk diren bere kantu kuttunak Piztu irratia!

Azaroak 24, ostirala, 10:30etik aurrera

**Beleixe irrastian**

beleixe 107.3 FM

# "Lasterketaren egunean jende askok laguntzen du"

**JOSE RAMON RAMIREZ PEREZ** ZIORDIA RUNNING TALDEA

Sakana Sarien herritarren aipamena jasotzeko zortzi hautagaitza zeuden. 1.500 sakandarrek baino gehiagok eman dute botoa, gehien Ziordiko ekimenak jaso du

**Alfredo Alvaro Igoa** ZIORDIA

Kirol jarduerak eta elkartasun ekimenak sustatzen dituen taldearendako izan da Sakana Sario herriaren aipamena. Bederatzi urteko jardunean Paris 365 jantokirako eta haren elkartasun biltegiarendako 10.000 kilo elikagai lortu ditu. Babestu dituen elkartasun ekimenendako, berriz, 80.000 euro baino gehiago eskeratu ditu. Gainera, Ziordia eza-gutzera eman du. Taldearen bihotz eta arima Jose Ramon Ramirez Perez da.

**Zer moduz hartu duzu saria?**

Jendeak egindako lana aitortzeak ilusio handia egin digu.

**Noiz sortu zen taldea?**

Lau lagunek osatu genuen 2014an: Jorge Azanzak, Juanjo Otsoak, Raul Mendozak eta nik. Hortik barna antolatzen ziren lasterketetan korrika egitera joaten ginen. Eta pentsatu genuen: "eta zergatik ez dugu herrian zerbait egiten?" Lasterketa bat antolatzeko gastuak eta inbertsioa eskatzen du. Udalarekin hitz egin genuen eta "aurrera" esan ziguten. Lehen lasterketa 2014an izan zen.

**Gaur egun bakarrik zabilta?**

Batzuk lanagatik, edo kanpora bizitzera joan zirelako, taldea utzi behar izan zuten. Hasieratik gelditzen den bakarra naiz. Dena



Jose Ramon Ramirez Perezen ordez senideek hartu zuten saria.

nire bizkar dago. Nahiz eta jendeak prestatzen laguntzen didan.

**Eta inork ez du taldean sartu nahi?**

Momentuz bakar batek ere ez. Ea zorrea dagoen eta taldera jende gehiago sartzen den. Gehiagoren artean antolakuntza lana errazagoa litzateke.

**Plangintza egin behar, ez?**

Lasterketa maiatz edo garagarrean bada, behar bada babesleak bilatzen ilbeltzean hasten naiz. Ondoren kartelak egin behar dira. Batez ere lasterketa prestatzea da gehien kostatzen zaidana.

**Behintzat laguntzaileak dituzu!**

Lasterketaren egunean jende askok laguntzen du antolakuntzan. Aurreko egunetan sarien poltsak prestatu behar dira. Lasterketa egunean bidegurutzetan trafikoa arautu behar da, dortsalak banatu, merendua prestatu... Egunean bertan 30 edo 40 pertsona behar dira. Ia beti berdina dira. Jendea faltaz gero kopurua osatzeko bilatu, eta kitto. Ziordiko Udalaren laguntza dugu, gasturik balego berak ordainduko luke.

**Egutegia zehaztuta duzu?**

Maiatza akaberan edo garagarrean hasieran lasterketa. Garila akaberan saskibaloi txapelketa, beti Markelen aldeko txartelak saltzen dira. Festetan, behar bada, futbol partidaren batzuk. Urtean hiruzpalau kirol ekitaldi ditugu Ziordian.

**Sare sozialetan oso aktiboa zara.**

Sareek bizi handia ematen digute. Esaterako, antolatutako zozketetako txartelak Valladoliden, Madrilen, Bartzelonan, Zaragozan, Bilbon eta beste hainbat tokitan erosten dizkigute. Sare sozialen bidez jende askok eza-gutzen gaitu. Eta lasterketara jende asko etortzen da sareen bidez eza-gutu gaituztelako. Garrantzitsua da.

**Bestela, beste lasterketa bat gehiago litzateke?**

Inguruan dauden herri txikiak lasterketetan parte hartzea txikia da. Beraz, eragina dauka sare sozialetan aktiboa izateak, eza-gutu izateak eta jendeak egiten duzun lana eza-gutzeak. Elkartasun ekimena denez, apika errazagoa da jendeak bat egitea. Niri sareek, pertsonalki, asko laguntzen didate.

**Lasterketarekin hasi, baina ez zaret horretara mugatu, ezta?**

Futbol eta saskibaloi txapelketak ere antolatzen ditugu. Eta festetan, batzuetan, haurrendako jolasen batzuk antolatzeko ere eskatzen digute.

**Guztia elkartasunera bideratuta.**

%100, beti. Zozketarako txartelak ez badira jakiak eskatzen ditugu. Lasterketan parte hartzen dutenei lau kilo jaki emateko eskatzen diegu beti. Hori Paris 365 jantokiarendako da. Ongintzako fundazioren batendako zozketaren bat ere egiten dugu: Dravet edo Rett sindromea fundazioak, edo arazoren bat duen umeren baten alde, esaterako Markel.



\*Gorde zerbait hau

**Ziordia mapan jarri duzu!**

Bazter guztietan eza-gutzen dute herria. Inguruko herri txikiak eza-gutzen dituzu, baina Donostiara bazoaz, hangoak ez. Ziordia mapan jarri dugu. Hedabideetan presentzia handia izan dugu. Lan handia egin dugu. Saria horren aitortza da. Oso pozik gaude.

**Urtea despeditzeko, areto futbola.**

Abenduaren 27an txapelketa izanen dugu frontoian. 10:00etatik 13:15era 7 eta 8 urte artekoek jokatu dute. Iruñea, Agurain, Arbizu. Eta 16:00etatik 19:15era kokkorraoetan txanda: Agurain, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Ziordiko taldeak neurtuko dira. Izenik ez da eman behar, baina jakiak ekarri beharra dauzkate, Paris 365 jantokiari emateko. Ikusleek eta ziordiarrek ere jatekoak ere eraman ditzakete. Horren berri ematen herrian gutuna banatzen dut. Beti egiten dute ekarpena.

**Jarraitzeko gogoz?**

Lasterketa egin baino lehen galde-tuz gero, bat bera ere ez. Baina ondoren jaki asko eman direla, fundazio bati 6.000 euro eman dizkiozula ikusi eta lana eta nekea pasatzen dira. Sariak lanean segitzeko gogoa ematen dizu.

**"LASTERKETARA JENDE ASKO ETORTZEN DA SAREEN BIDEZ EZA-GUTU GAITUZTELAKO"**

**Nafarroako**  
Bertsolari Txapelketa  
2023

**Artxibatuak** **Laguntzaileak**

**FINALA**  
**IRUÑEA**  
Abenduak 2, larunbata  
17:00etan, Anaitasuna  
Kiroldegian

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai

Lazkoz Martinez, Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Alzuri, Julio Soto Ezkurdia, asatorre Martinez, Saioa Alkaiza Guallar, Sarai Robles Vitas eta Xabat Illarregi Marzol

Gai-jartzaileak: Ainhoa Larretxea Agirre eta Ander Aranburu Arriola

[www.bertsosare.eus](http://www.bertsosare.eus)

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO  
13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /  
kultura@guaixe.eus



\*Gorde zerbaki hau

## OSTIRALA 24

## ALTSASU Elkarretaratzea.

A25 Indarkeria matxistaren aurrean, emakume langileon antolakuntza! Ikasle Abertzaleak-en elkarretaratzea. 12:30ean, Iñigo Aritzta ikastolako patioan.

## ARBIZU Gazte eguna.

17:30 Palestinaren egoeraren inguruko hitzaldia, Argi Biden.

20:30 Pintxopotea.

21:00 Edu Zardoya.

22:30 III Futbolin txapelketa.

## HIRIBERRI ARAKIL Film dokumentala eta solasaldia.

Emakumeak alpinismoan film dokumentalaren proiektzioa eta protagonistekin solasaldia. Arakilgo Udalak antolatuta. 18:00etan, Txiteran.

## IRURTZUN Kontzertua.

Iluntze akustikoak: Imanol eta Enara musikarien kontzertua. Iratxo elkarteak antolatuta. 19:00etan, Iratxo elkartearen.

## ALTSASU Antzerkia.

Behi-jasa antzezlanaren emanaldia: emakume ugariaren tragedia ixildua; tratu txarren gaia poesiaren eta antzerki absurdoaren bidez lantzen du. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak azaroaren 25aren egitarauaren barruan antolatuta. 18 urtetik beherakoak doan. 19:30ean, Iortia kultur gunean.

## IRURTZUN Jardunaldia.

Palestinaren herriaren aldeko jardunaldia. 20:00 Hitzaldia: Txuri Olo eta Gaxan Saad BDZko kideen

Palestinaren egoeraren inguruan, Pikuxar ganbaran. Ondoren, afari solidarioa Palestinako menuarekin, Pikuxarren.

## ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

Sarearen Konponbiderako Giltzak dinamikaren aurkezpena. 20:30ean, plazan.

## ALTSASU Afaria.

Kantaitan afaria 2023. Euskal Herrian Euskarazek antolatuta, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin. 21:30ean, Kukurreka elkartearen.

## LARUNBATA 25

## ARBIZU Jardunaldia.

Zure ongizatea elikatzen gabonetako azoka, gaztelaniaz, doan. Olatzea Hotelean.

10:00 Valen Ormazabal: Olatzea Hotelaren aurkezpena.

10:30 Mirentxu Goikoetxea: argazkiaren eta sare

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

Abentura erraldoia familiarterko filmaren emanaldia euskaraz  
Igandea 26: 17:00

Un amor gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Igandea 26: 19:30

Alimañas gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Azaroak 30: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

Vidas pasadas zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 26: 19:00

Teresa zineforum filmaren emanaldia  
Azaroak 30: 19:00

sozialen komunikazioaren bidez zure buruan sinesteko hitzaldia.

11:15 Ana Araujo: Focus Donostiaren bizitza xedea.

12:00 Maitane Ormazabal: Autoestima y mucho más liburuaren aurkezpena.

13:00 Eventos Humadaren luntxa.

15:30 Rakel.sukha: yoga hazkunde pertsonalerako tresna eta gidatutako meditazioa.

16:15 Raquel Iriarte: astrologiaren bidez autoezagutza.

17:30 Rosa Fernandez: menopausia, ibiltzea ez da nahikoa.

## ETXARRI ARANATZ Bakaiku. Altsasu. Kalejira.

Haize Berriak Bandaren Santa Zezilia kalejira: kide berrien herrietan kalejira.

10:30 Etxarri Aranatz.

11:45 Bakaiku.

12:45 Altsasu.

## ALTSASU Ate irekien jardunaldia.

Josefina Arregi klinikaren eguneko zentroaren ate irekien jardunaldia.

10:30 Hasiera.

11:00 Zuhaitzaren landaketa.

11:15 Instalazioetatik bisita.

## LAKUNTZA Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki! Sakanako Itaiaren elkarretaratzea. 12:00etan, plazan.

## ARBIZU Gazte eguna.

12:00 Aate eta txupinazoa.

13:00 Trikipotea.

15:00 Bazkaria eta bingoa.

19:00 Argi gurdiya.

20:00 Kontzentrazioa: Zuben indarkeeyek ez geittu geldittuko.



IORTIA KULTUR GUNEA

## ALTSASU. Antonio Valencia natura argazkien erakusketa, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta.

Azaroaren 30 arte. Iortia kultur guneako aretoen korridorean.



## IRURTZUN Francisco Navarro artistaren margo erakusketa.

Azaroan. Pikuxar tabernan.



ARTXIBOA

21:00 Bokata.

23:00 Kontzertuak: Habemus Papam eta Bulkada.

Ondoren, txupito bereziak DJ Atenenasekin.

## IRURTZUN-ARAKIL Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak. Indarkeria matxistaren aurrean autodefentsa feminista. Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea. 13:00etan, Irurtzungo plazan.

## LAKUNTZA Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak. Indarkeria matxistaren aurrean autodefentsa feminista. Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea. 13:00etan, plazan.

## ITURMENDI Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak. Indarkeria matxistaren aurrean autodefentsa feminista. Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea. 18:00etan, plazan.

## URDIAIN Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak. Indarkeria matxistaren aurrean autodefentsa feminista. Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea. 18:00etan, udaletxearen aurrean.

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Azaroak 25 Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki! Sakanako Itaiaren elkarretaratzea. 18:00etan, Foru plazan.

**ALTSASU Gazte agenda.**

Azaroak 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunerako pankarta margoketa.

**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

**ALTSASU Manifestazioa.**

Azaroak 25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak. Indarkeria matxistaren aurrean autodefentsa feminista. Sakanako Mugimendu Feministaren manifestazioa.

**19:00etan, plazan.**

**ALTSASU Kontzertua.**

Martin Marin abeslariaren, Borja Echeverria pianistaren eta Ivan Ceballos baxu jolearen kontzertua; rock, pop eta soul klasikoak.

**22:30etan, Haritza tabernan.**

**OLATZAGUTIA Jaialdia.**

November Fest: MC Flurry, Morti, Carlos Perez, Kulimery, Alaine MRK eta Jon Matraka DJak. OGAK antolatuta.

**23:00etan, Maisuenea gaztetxean.**

**IGANDEA 26****IRURTZUN Mendi irteera.**

Iratxo elkartearen mendi irteera: Aralarko Tuturrera.

**08:30etan, Iratxo elkartetik.**

**ETXARRI ARANATZ Areto futbol.**

Sakanako Benjaminen areto futbol – futbol 8 topaketak. Lehenengo joanaldiaren lehenengo jardunaldia. Frontoian.

**10:00 Sutegi – Arbizu KT.**

**11:00 Etxarri Aranatz KE – Altsasu.**

**12:00 Uharteko Neskak – SD Altsasu.**

**13:00 Aralar Mendi – Altsasu KE.**

**ETXARRI ARANATZ Omenaldia.**

Zure ereditutik aterako dira ezpalak Jon Etxabe omentzeko ekitaldia.

**12:30etan, kultur etxean.**

**OLATZAGUTIA Antzerkia.**

Markeliñe konpainiaren Mamut familiarterako ikuskizuna:

Hiru pertsonaia hominido, otsoen mehatxutik babesten dira mamut baten hezurren ondoan. Mamuta eta bere hezurak sormenerako baliabide eta tresna bihurtzen dira.

**17:00etan, kultur etxean.**

**ETXARRI ARANATZ Ikuskizuna.**

Xabier Artiedaren *Moby Dick* ipuin kontakizun antzezlan.

**17:30etan, kultur etxean.**

**ASTELEHENA 27****ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduari Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

**ASTEARTEA 28****ETXARRI ARANATZ Ipuin kontakizuna.**

Izaskun Mujika ipuin kontalariaren Ipuinen haria saioa.

**17:30etan, liburutegian.**

**ALTSASU Hitzaldia.**

Adimen gaitasun handien inguruko ANAC elkarte Amaiia Argiriano psikologoa eta irakaslearen hitzaldia: zer diren adimen gaitasun handiak, zergatik den garrantzitsua goiz detektatzea, elkartearen jarduna...

**18:00etan, lortia kultur gunean.**

**OSTEGUNA 30****GREBA FEMINISTA OROKORRA****UNANU San Andres eguna.**

**13:00 Meza, San Andres ermitan.**

**14:30 Bazkaria, Denok bat elkartean.**

**OLATZAGUTIA Film laburren proiektzioa.**

Navarra, tierra de cine lehiaketa parte hartu duten film laburren proiektzioa, tartean Olaztin filmatutako Imanol Retaren *Última vista*.

**19:00etan, kultur etxean.**

**OSTIRALA 1****ALTSASU Tailerra.**

Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra. Biak Bat elkarteak, Sakanako Mankomunitateak, Arkatz liburudendak eta Txantxari Ludotekak antolatuta.

**15:30etan, Txantxari udal ludotekan.**

**IRAGARKI SAILKATUAK****IRAKASKUNTZA****KLASEAK EMAN**

**LH ikasleendako klase partikularrak:** Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

**LANA/NEGOZIOAK****ALOKAGAI**

**Altsasun 'Coworking' bulego autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulego; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta office-a ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

**IKASTAROAK**

**Aisialiko begirale titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroa Altsasun eta Etxarri Aranatz:** Abenduaren 16tik maiatzaren 11ra bitarteko larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara eta egun trinkoak, abenduaren 16, 27, 28 eta 29. Etxarriko eta Altsasuko Udalek dirulaguntza ematen dute. Informazioa gehiago eta izen emateak 610 257 471 telefonoan edota [etlurtxintxa@gmail.com](mailto:etlurtxintxa@gmail.com) e-postan.

**OHARRAK**

**Elikagai bankuak boluntarioak behar ditu:** Azaroaren 24an eta 25ean hainbat supermerkatuetan jarriko dira eta herritarrek emandakoa jasotzeko arduratuko diren boluntarioak behar dituzte. Interesa baduzu [www.colectas.bancoalimentosnavarra.org](http://www.colectas.bancoalimentosnavarra.org) webgunean izena eman dezakezu.

**Zabalarte mendi elkar- tea egutegirako argazki bila:** Elkarrekin Lakuntzako txokoan argazkiekin ilustratu nahi du 2024ko egutegia eta horretarako lakuntzarrei argazkiak helbide honetara bidaltzea eskatzen die: [lakuntza.aralar@gmail.com](mailto:lakuntza.aralar@gmail.com).

**Elkartasunezko bilketa Olaztin:** Abenduaren 11n, 12an eta 13an goizeko 9:00etatik 11:00etara Olaztin kultur etxean egoera onean dauden arropak, jolasak, liburak

e.a eraman eta abenduaren 17an egingo den bigarren eskuko azokan salduko dira oso prezio onean. Saltzen ez den materiala Elkarri Laguntza elkarteari bideratuko zaio. Informazio gehiago 648 070 710 telefonoan edota [anitzartean@sakana-mank.eus](mailto:anitzartean@sakana-mank.eus) e-postan.

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:** Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoiei eta elkarrekin zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzeko duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30etan, 11:30etan, 13:30etan, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.**

[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**Nabarmendu zure iragarkia**

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

## ESKELA

**Antonio Lezea Etxarri**

Beti gure gogoan

**Postillonoko familia**

Lakuntza-Altsasun, 2023ko azaroaren 22an

**JAIOTZAK**

- **June Juandeaburre Garcia**, azaroaren 20ean, Urdiainen
- **Yasmin Amri Tsouli**, azaroaren 14an Altsasun

**HERIOTZAK**

- **Jose Antonio Lecea Echarri**, azaroaren 22an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

**Izarra, Nafarroako tanatorioa**

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

## BEILATOKIAK

ALTSASU  
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ  
Nagusia, 2

948 05 90 90 • [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## FUTBOL PREFERENTEA

## 10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Aibares 4-0

## SAILKAPENA

## PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Valle de Egües B 22

5 Altsasu 19

## HURRENGO JARDUNALDIA

## AZAROAK 26, IGANDEA

17:45 Burlades - Altsasu (Ripagaina)

## Altsasu, bigarrenaren kontra

Goi postuak oso estu daude Preferenten. Altsasuk sailkapenean bigarren den Burladesen kontra jokatu duen partidari bigarren postua bera dago jokoan.

## Zalduak berdindu, baina lider

Elomendiko Futbol Txapelketako bederatzigarren jardunaldian Zalduak eta Apolok bina berdindu zuten. Lider segitzen du Zalduak (20 puntu). Larunbatean Izalsa izango du aurkari, Lizasoainen.

## EMAKUME PREFERENTEA

## 9. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasuk atsedean jardunaldia zuen

## SAILKAPENA

## EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1 Tudelano 20

9 Altsasu 1

## HURRENGO JARDUNALDIA

## AZAROAK 25, LARUNBATA

20:00 Burlades - Altsasu (Ripagaina)

## Altsasu, buelta ematera

Atsedean jardunaldiaren ondoren, gogotsu ekin nahi dio ligari Altsasuk.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 8. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - San Jorge 2-1

Baztan - Lagun Artea 1-3

## SAILKAPENA

## ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C 21

5 Etxarri Aranatz 14

7 Lagun Artea 13

## AZAROAK 25, LARUNBATA

16:00 Lagun Artea - Berriozar (Zelai Berr)

## AZAROAK 26, IGANDEA

18:30 Mutilbera C - Etxarri (Aranguren)

## Etxarri, liderraren kontra

Etxarri Aranatzek Mutilberaren kontra jokoan dauden 3 puntuak eskuratzeko luzatu nahi du bolada ona.

## Lagun Artea, bide onetik

Baztanen lortutako garaipenaren ondoren, Lagun Arteak Berriozar hartuko du etxean. Lakuntzarrek bide onetik segi nahi dute.

# Nafarroako selekzioetako sakandarrak, lanpetuta

**FUTBOLA / ARETO FUTBOLA** Espainiako Futbol eta Areto Futbol Txapelketak prestatzeko Nafarroako Futbol Federazioak kategoria ezberdinetako selekzioak deitu ditu egunotan, entrenatu eta lagunarteko partidak jokatzerako. Tartean jokalaririk sakandarrak daude

## Maider Betelu Ganboa SAKANA

Nafarroako Futbol Federazioko webgunean sartzearekin batera ikusten da Nafarroako futbol eta areto futbol selekzioek egunotan duten mugimendu handia.

Futboleko, abenduaren 8tik 10era UEFA Erregioen Kopa jokatuko da Picassenten (Valentzia) eta bertan lehiatuko da Nafarroako afizionatuen selekzioa. Valentzia, Katalunia eta Errioxa daude bere multzoan. Selekzioa txapelketa prestatzen aritu da, eta asteartean lagunarteko partida jokatu zuen Dantzalekun, Euskadiko selekzioaren kontra. Eurpean erabakitako partidari, bana berdindu zuten.

Halaber, abenduaren 14tik 17ra Madrilen jokatuko den Espainiako Futbol Txapelketan Emakumezkoen Nafarroako 17 urtez azpiko selekzioak jokatuko du. Madril, Asturias eta Errioxa daude bere multzoan. Mulierren jokatzen duen Laida Garziandia lakuntzarra da Nafarroako selekzioaren arituko den jokalaririk bat. Asteazkenean Berriozarren kontra jokatu zuen Nafarroak, eta 2 eta 0 irabazi zuten.

## Nafarroa vs Euskadi, Irurtzunen

Nafarroako Areto Futboleko selekzioak ere martxan daude.



Laida Garziandia, behean ezkerretik hasita lehen, selekzioiko kideekin. NAF. FEDERAZIOA

Otsailaren 13tik 17ra Espainiako Txapelketa jokatuko da Valentzian, baina txapelketako lehen-dabiziko fasea abenduaren 26tik 29ra erabakiko da, El Ejidon. Nafarroako gizonezkoen 19 urtez azpiko selekzioa Katalunia, Aragoi eta Ceuta selekzioen multzoan dago. Aurten Anaitasunan jokatzen ari den Xotako Oier Aguirre Lopez iturmendiarrak deitu dute Nafarroara. Azaroaren 26an, igandea, 12:00etan, Nafarroak Euskadiko selekzioa izango du aurkari, Irurtzungo Atakondoan jokatuko den lagunartekoan.

Aurretik, 10:00etan, gizonezkoen 16 urtez azpiko Nafarroako eta Euskadiko selekzioek jokatuko dute lagunartekoa, Irurtzunen. Nafarroako selekzioan Xotako lau jokalaririk daude: Hugo Nagore, Oier Amezarrai, Julen Fernandez eta Aimar Iraurgi.

Bestalde, emakumezkoen 19 urtez azpiko areto futbol selekzioarako Xotako bi jokalaririk deitu ditu Nafarroako selekzioak: Naia Lizarraga eta Nahia Moran. Emakumezkoen 16 urtez azpiko Nafarroako selekzioarako Xotako Nahia Lamarca deitu dute.

## Burundak urtea itxi du

## TXIRRINDULARITZA

Burunda Txirrindularitza Taldearen 2023 ikasturteko bukaera ekitaldia hartu zuen ostiralean. Quesos Albeniz-Burundako 2023 urteko txirrindulari guztiek oroigarria jaso zuten klubean trebatu eta 2024an profesional izango diren Iker Mintegi (Euskaltel) eta Unai eta Hugo Aznar (Kern Pharma) txirrindularien eskuetatik.



BURUNDA

## Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Nora Ruiz Melero irurtzundarra Osasuna, Betis, Hisspalis eta Ciudad Alcala de Guadaira taldeetako futbolari ohia da. Futbola utzi zuen, psikologikoki jota. 5 urte geroago, eta inola ere espero ez zuenean, Osasuna Beteranoak taldeko futbolaria izateko gonbidapena iritsi zitzaion, eta futbolarekin adiskidetu da.

## Oso emakume gutxi jokatzen zutenen izan zinen futbolaria.

Nik dakidanez, nire inguruan ni izan nintzen bakarra. 5 urterekin aretofutboleko hasi nintzen, 2000-2001 urtean, Xotan. Mutilekin jokatzen nuen. Xotak nesken helduen taldea zuen, eta nik beraiekin entrenatzen nuen. Bertan Osasunako entrenatzaile bat zegoen, eta Osasunara probak egitera joatera animatu ninduen. Eta horrela hasi zen gusia. 10 urtetik 18 urtera arte Osasunako jokalaririk izan nintzen.

## Orduan emakumezkoen futbolak ez zuen gaur egun duen indarra.

Inola ere ez. Txikia nintzela futbol 7 kategorian talde oso gutxi ginen Nafarroan, zortzi-bederatzita talde guztira. Osasunako talde nagusiarekin bigarren mailan jokatzen nuen, eta Euskal Herriko taldeak, Logroñoakoak eta ingurukoak jokatzen genuen.

## Emakumezkoen Osasuna desagertu zenean Sevillako bidea hartu zenuen, Betisera.

2014an emakumezkoen Osasuna desagertu zuen. Sevillatik deitu zidaten, eta Betisera joan nintzen. Ekainean iritsi nintzen eta beroa izugarria zen. Berora ohitzera kostatu egin zitzaidan. Baina urte oso gogorra izan zen. Hasieran ongi jokatzen hasi nintzen, minutu asko, baina lesioak iritsi ziren, larriak: orkatileko lotailuak eta belauneko lotailuak. Oso gaizki pasatu nuen. Betisen urtea bukatu nuen eta kontratua berrirez eskaini zidaten, baina ezetz erantzun nien, nire burua ez zegoelako presio horrekin jokatze moduan.

## Lehen mailan inoiz jokatu izan al duzu?

Aukera izan nuen, baina lesioa izan eta gero psikologikoki ez nengoen ongi, eta ez nuen nahi izan. Betis utzi, eta Sevillako Hisspalis taldera joan nintzen. Talde hau ere bigarren mailakoa zen, baina presioa ez zen horrenbestekoa. Lasaiago jokatzen genuen. Bi urte egon nintzen, primeran, lesiorik gabe eta disfrutatzen. Ondoren Sevillako Ciudad





Ablitenseren kontra Osasuna Beteranoekin jokaturako partidari, Nora Ruiz Melero txalotutakoena izan zen. FERMIN PEREZ-NIEVAS.

# "Futbola gorrotatzera iritsi nintzen; orain, adiskidetu naiz"

**NORA RUIZ MELERO OSASUNA BETERANOAK TALDEKO FUTBOLARIA**

**FUTBOLA** Futbolari ohi irurtzundarrak historia egin du, Osasuna Beteranoak taldeko lehen emakumea baita. Izugarri gozatu zuen bere mustutzean, Ablitasen

Alcala Guadairara joan nintzen. Maila jaitsi nuen, 2. B mailakoa. Sevillan lan egiten nuenez, biltegi bateko langile, bertako taldeak hautatzen nituen, lana eta futbola uztartzeko.

**Ez da berdina soilik futbolaria izatea, edo langilea eta futbolaria izatea.**

Jakina. noGoizeko 5:30ean altxatu, 8 ordu lan egin, korrika bazkaldu eta azkar entrenatzera joatea. Hori zen bizimodua. Gehiegi zen, jakina.

**Zergatik utzi zenuen futbola?**

Nire buruak ezin zuelako gehiago; gainezka nengoen. 25 urte nituen, eta egun batetik bestera esan nuen: "Honaino. Bukatu da". Nire buruak nahikoa zela esan zidan. Ez nengoen ongi, eta horrela ezin nuen jarraitu. Eta utzi

**"OSASUNA EMAKUMEZKOEN TALDEA DESAGERTU ZENEAN BETISERA JOAN NINTZEN"**

nuen. Sevillan jarraitu nuen lanean denboraldi batez. Guztira, 8 urtez egon nintzen Sevillan. Gero Madrilera joan nintzen lanera, eta 2 urte egon nintzen. Duela 2 urte etxera bueltatu nintzen, Iruñera.

**Ciudad Alcala Guadaira utzi zenuenetik, futboleari aritu izan al zara?** Ez, ez nuen baloi bat ere ukitu. Futbola gorrotatzera iritsi nintzen. Ez nuen telebistan ere futbola ikusten. Zero. Eta ni oso futbolzalea nintzen. Futbol zelaira joaten nintzen partidak ikustera,

telebistan ere ikusten nituen, baina guztia utzi nuen. Futbola utzi nuenean laguntza psikologikoa eskatu nuen.

**Beraz, osasun mentala zaintzen hasi zinen.**

Psikologo batekin lanean hasi nintzen, eta oraindik ere jarraitzen dut. Askoz hobe nago. Psikologoak izugarri lagundu nau.

**Nola sortu zen Osasuna Beteranoen taldean jokatzeko aukera?**

Irurtzungo Atakondoa ikastetxeko irakasle Manuel Iznalok *Irurtzun eta Atakondoa. Kirol haziak eta fruituak Bi Ahizpen oinetan* liburua idatzi zuen, Atakondotik pasatu ginen kirolariei buruzkoa. Mahai inguru batera gonbidatu ninduen, eta bertan Chus Luengo kirol kazetaria zegoen. Berak esan zidan Osasuna Beteranoak taldean emakumeei atea ireki nahi zietela, eta ea animatzen nintzen. Deitu zidan, eta Osasuna Beteranoak taldeak Iruñeko Gaztelu plazan duen egoitzara joan nintzen. Eta ia konturatu gabe taldean sartu nintzen.

**Futbolarekin amodio-gorrito harremana zenuenez, zure lehendabiziko tentazioa ez al zen ezetz esatea?**

Egia esan, gehiegi pentsatu gabe baiezkoa eman nuen. Gerora, futbolarekin disfrutatzeke beste modu bat izango zela pentsatu zuen. Asteartean entrenatzen dugu, 19:00etatik 20:00etara. Lehenengo entrenamenduan nobedadea izan nintzen. Sekulako harreman egin zidaten, eta ni taldean egoteagatik oso kontentu zeudela esan zidaten. Oso gustura entrenatu dut beraiekin.

**Horrenbeste denbora jokatu gabe egon eta gero, nola ikusi zenuen zure burua?**

Jokatzen, ongi; baina ordu erdi pasata, fundituta nengoen. Fondo gehiago behar dut.

**Zein postutan jokatzen duzu?**

Aurrelaria naiz. Golaren ondoan, hor beti.

**Larunbatean Ablitenseren kontra jokatu zenuten, ELA gaixotasuna dutenen aldeko ekimenean.**

Osasuna Beteranoen partidak beti halakoak dira, elkarteen edo fundazioen aldekoak. Oso ekimen

**"BOST URTE BALOIA UKITU GABE EGON ONDOREN, JOKATZEN ONGI IKUSTEN DUT NIRE BURUA"**

polita da. Espetxera ere joaten dira, presoekin jokatzera.

**Txapeldun handiak bezala atera omen zinen zelaira.**

Pasilloa egin ziguten. Ni azkena atera nintzen, Ablitaseko nesken areto futbol taldekoekin. Harreman ederra izan zen, oso eskertuta nago. Partidari dagokionez, bigarren zati osoa jokatu nuen. Gol aukerak sortu nituen: batek langan jo zuen, hiruzpalau jaurtikea egin nituen atera...

**Baselina polita egin omen zenuen, oso txalotua izan zena.**

Barrura sartuko banu sekulako ospakizuna egingo genuela esan zidaten (kar-kar). 1 eta 2 irabazi genuen. Ablitasekoa sekulakoa izan zen. Jendea oso ongi portatu zen nirekin. Garrantzitsuen ekimen solidarioarako dirua biltzea izan zen. 500 pertsona inguru hurbildu ziren, eta 9.000 euro bildu ziren. Eurekin bazkaldu genuen, giro ederrean.

**Futbolarekin zenuen gorroto erlazio horri buelta eman diozu. Hori zuretzeko psikologikoki oso positiboa izango da.**

Bai. Iznalaren liburuko aurkezpenaren harira, psikologoarekin hitz egin nuen eta esan nion: "hau futbolaren etapa ixteko egingo dugu". Eta, bat-batean Osasuna Beteranoena suertatu zen. Psikologoari aipatu nion: "eskerrak etapa itxi behar genuela" (Kar-kar). Psikologoa ere oso kontentut dago.

**Errealeko Zuhaitz Gurrutxaga jokalaria ohiak 'Subcampeón' liburuan aipatzen du berak Errealean jokatzeke ametsa bete zuela, baina emozionalki jota zegoela.**

Betisekin Lehen mailara igotzeko promozioa jokatu nuenean igualtsu nengoen. Gainera, Sevillan bakarrik nengoen, 18 urterekin, eta halako egoeran. Imagina ezazu. Gutxienez, laguntza eskatu nuen. Baina badaude laguntza eskatzen ez dutenak. Eta halako egoera batean, zure bizi-tzari buelta eman behar diozu.

**Hemendik aurrera, zer?**

Datorren astean azken entrenamendua egingo dugu, eta ilbeltzean hasiko gara berriz, Eguberrietako oporren ondoren.

**Nola ikusten duzu emakumezkoen futbola gaur egun?**

Zorionez, ikaragarri aldatu da. Futbol zelaiak aldatu dira, babesleak dituzte, soldata dute... Lehen emakumezkoen partida bat telebistan agertzea ezinezkoa zen, eta gaur egun telebistan partidak ikus daitezke.



Javier Andueza Artieda Lagun Arteako juntako kidea da 1996tik. Belar naturaleko zelaia zaintzea da bere lanetako bat.

# Zelai Berriko eta Itxesaldeko zaindariari, aitortza

**FUTBOLA** Lakuntzako Lagun Artea Futbol Taldeko Javier Andueza Artiedari zilarrezko domina emango dio Nafarroako Gobernuak, 25 urte baino gehiagotan futbola sustatzeko egindako lan nekaezina aitortzeko. Asteartean jasoko du domina, Nafarroako Jauregian

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA Nafarroako Gobernuak entrenatzaile, teknikari, eta junta lanetan 25 urte luze baino gehiago daramatzaten 30 pertsoneri aitortza egingo die azaroaren 27an, astelehena, Nafarroako Jauregian, eta zilarrezko domina banatuko die kirola sustatzeko egiten duten lan ordainezina eskertzeko. Domina jasoko dutenen artean Javier Andueza Artieda lakuntzarra dago, Lagun Artea Futbol Taldeko juntakidea, beste zeregin askoren artean Zelai Berri eta Itxesalde futbol zelaia primeran egoteko arduraduna.

## Futbolaria

Javier Andueza Artieda, herriko beste mutil asko bezala, Lagun Artea taldeko futbolaria izan zen. Hamazazpi urte zituela hasi zen Lagun Artean, erdi-

lari, defentsaren aurretik. "Lagun Artea Erregional mailakoa zen, eta Preferentera igo ginen. Sekulakoa izan zen, orduko Preferentea gaur egungo Hirugarren maila dena zelako, edo gehiago, ez baitzeuden Bigarren B eta halako mailak. Orduko Preferentean Osasuna Promesasek, Peña Sportek, Izarrak, Tudelanok, Harok... halako taldeek jokatzeko zuten. Osasuna Bigarren Mailatik Hirugarrenera jaitsi zen, eta gu Erregionaletik Preferentera igo ginen, Osasuna baino kategoria bat beherago" gogoan du Anduezak. Lakuntzan "zale-

**"ITXESALDEN ETA ZELAI BERRIN LANIK GEHIENAK AUZOLANEAN EGITEN DITUGU"**  
JAVIER ANDUEZA

tasun handia" zegoela nabarmentzen du. "Kanpora jokatzera joaten ginenean, bi autobus betetzen genituen, haurrak, gazteak, helduak... denetatik. Giroa ederra zen". Belauneko arazoei hasi zen, eta gauza bat eta bestea zela, ezkondu zenean utzi zuen. "Ordutik partidak ikustera joaten nintzen, beste zaletuek bezala".

## 1996an kluba birsortu zuten

Lagun Arteak historia luzea du. 1966. urtean sortu zen ofizialki, bere estatutuekin, araututa, baina aurretik jokatzeko zuten. 1948. eta 1949. urteetako Nafarroako Futbol Federazioko aktetan agertzen da. Bateko eta besteko arazoak zirela medio, 1983an desagertu zen, hamahiru urtez. "Lakuntzako Pertza elkarteak juntan elkartearen lehendabiziko erreforma edo obra

handia egitea egokitu zitzaigun. 1995ean komisio bat sortu genuen lanei aurre egiteko, eta komisio horretan geundenetako batzuk Lagun Artea futbol taldea birsortzea erabaki genuen, taldea ateratzea. Elkarteko lanekin bukatu genuenean, futbol taldea bigarrenez birsortzeko lanarekin hasi ginen, 1996. urtean".

Horrenbeste urte erabili gabe egon ondoren, Itxesalde futbol zelaia barratuta zegoen. "Zelaian ardiak egoten ziren, eta aldage-lak, eta gauza asko, apurtuta zeuden. Ez zegoen ez urrik, ez argirik... ezer". Zerotik hasi zirenez, dirua behar zen. "Garai hartan 5 milioi pezetako kreditua eskatu genuen, guk, juntakideek, abala emanda, emazteei ezer esan gabe. Duela 27 urte hori diru asko zen".

Santi Mendieta, Pedro Mari Lopetegi, Carlos Ruiz de Eren-txun, Miguel Angel Areta, Jesus Mari Goikoetxea, Jose Mari Lanz eta Javier Andueza zeuden hasierako junta hartan. Taldea sortzeko paper eta baimen kontuak eta Nafarroako Futbol Federazioko harremanak Miguel Angel Aretaren ardura ziren. Nafarroako Herriko gazteekin hitz eginda, 1996/1997 denboraldian Erregional Mailan hasi zen jokatzeko Lagun Arte, baina denboraldia Uharte Arakilgo Aralar Mendik utzitako zelaian jokatu behar izan zuten, Itxesalde konpontzen ari zirelako. Irañetako Txapel Azpin ere entrenatzen zuten. "Trukean, aldagelak konpondu genizkien".

## Itxesaldeko lanak, auzolanean

Itxesalden lan izugarria egin zuten. "Goitik behera buelta eman genion. Eskerrak Santi Mendieta juntan zegoela. Anaiekin eraikuntza enpresa zuenez, behar genuen makineria guztia jarri zuten: kamioia, palak... denetatik. Juntakideek esku lan handia egin genuen. Orduak eta orduak sartu genituen. Hormigoizko posteak ekarri, jarri, zelaia txukundu, aldagelak konpondu... denetatik. Ahal ziren lanak auzolanean egin genituen, larunbata eta igandeetan".

**BELAR ARTIFIZIALEKO ZELAIAREKIN KLUB BATI LANEN %80 KENTZEN DIOZU"**  
JAVIER ANDUEZA

1997/1998 denboraldian Itxesalden jokatu zuen Lagun Arteak. "Horrenbeste urte jokatu gabe, hasieran belarra zegoen. Belarra mozteko makina erosi, eta zelaia ongi prestatu genuen. Baina zelaia erabiltzearen poderioz, lokatza agertu zen, eta horrela ezinezkoa zen. Harea ekartzea erabaki genuen, harezko zelaia izateko. Makina bat kamioikada hare ekarri genituen! Xabi Bel-teluk utzitako nibelagailuarekin guztia ongi jarri, eta zelaia inklinazioa eman genion, euria egiten zuenean ura alboetara joan zedin". Tartean, hutsik egin gabe, Javier Andueza. "Eskerrak bere garaian hare kapa potoloa jarri genuela, erabiltzearen poderioz jaisten baitoa. Harearen azpian lurra dagoenez, tarteka belarrak ateratzen dira, eta kendu behar izaten ditugu" dio.

## 1998. urtean, Zelai Berri

Bitartean, zelai berria egiteko aukera sortu zitzaion Lakuntzako Udalarari. "Itxesalde atzean igerilekuak egiteko proiektua zegoen. Bere garaian zuloa eta guzti egin zuten, gaur egun publizitate poste handia dagoen toki horretan, baina autobideko obregatik jada igerilekuak ezin ziren bertan egin, autobiatik gertu geratzen zirelako". Aldi berean, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari Jose Luis Diezek Itxesalde bera ere autobiatik oso gertu zegoela aipatu zuen. Aukerak ikusita, Lakuntzako Udalak Eskola Laboralak ziren eremuan egin zituen igerilekuak eta futbol zelai berria, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin. Zelai Berri izena Lagun Artearen lehenengo zelaia, parkean dagoen Zelai Ederren aldaera bat izan zen.

Zelai Berri eta Itxesalde Lakuntzako Udalaren jabetzak dira, baina Lagun Artea Futbol Elkartea da kudeatzailea. Zelai Berriko lanak udalak egin zituen, baina ondoko lan guztiak (harmailak, taberna, komunak, biltegia, txokoa, igerilekuen pareko tribuna txikia eta bestelakoak) Lagun Arteak ordaindu eta egin ditu. Auzolanean, jakina. "Ondare handia utziko diogu herriari" dio Anduezak. Ildo honetan, udalari babes gehiago eskatzen dio. "Itxesaldeko eta Zelai Berriko ura eta argia udalak ordaintzen ditu. Horretaz gain, urtero 500-900 euro ingu-

ruko dirulaguntza ematen digu, baina arbitraje batek 400 euro balio ditu, atera kontuak. Klub batek gastu handiak ditu: jokalarien fitxak, mediku azterketak, arbitrajeak, jantziak, txartelak... uste dut gehiago merezi dugula. Klub askok ez dute sinisten horren dirulaguntza gutxi jasotzen dugunik".

### Di Stefano eta Clemente

Zelai Berriko harmailek Miguel Ansorenaren izena eta argazkia daramate. "Miguel Ansorena zenak laguntza ekonomiko handia eman zigun. Harmaila, berari esker egin genuen. Materiala erosteko dirua jarri zuen, eta ondorengo esku lan guztia guk egin genuen auzolanean: piezak soldatu, kokatu, muntatu...". Ansorenak Fronton jatetxea kudeatzen zuen Madrilén Amaia Martínez bere bikote lakuntzarrekin. "Ansorenaren harremanei esker, duela 25 urte, Zelai Berriko mustutzeko partidán, Alavesek eta Valladolidek jokatu zuten. Alaveseko presidentea Gonzalo Anton zen, upategiataria, Ansorenaren ezaguna. Eta partida ikustera Alfredo Di Stefano eta Javier Clemente etorri ziren, Ansorenaren ezagunak. Sekulakoa izan zen" gogoratzen du Anduezak.

Partidaren ondoren Alaveseko eta Valladolideko jokalariei eta teknikariek Lakuntzako Pertza elkartearen bazkaldu zuten. Baita Osasunakoak eta Oviedokoak ere, Lakuntzako beste laguntzakoak partida baten ondoren. "Txuletak egin genizkien, bage-nekielako oso gustuko zutela. Gustura egon ziren".

### Zelai ongi egoteko, lan handia

Javier Anduezen buruko min handiena Zelai Berriko zelai naturala ongi zaintzea da. Ordu asko ematen ditu honetan. Ia egunero egiten du buelta Zelai Berrira. Belarra mozteko bi makina daude, eta makinak ongi mantentzeko eta konpontzeko ardura ere berea da.

Belarra mozteak ordu asko kentzen ditu, baina lan gehiena eguraldi kaxkarra hasten denean zelaiaren markatuta gelditzen diren zuloak betetzea eta konpontzea da. "Hasieran zulo-zulo hareekin nahasitako masa batekin betetzen genituen zuloak. Poza-la hartu, eta aurrera. Duela urte batzuk, jasotako belarra hartu, zuloa eraman eta ongi luzatzen



Javier Andueza, mimoz zaintzen duen zelaiaren ondoan. Belar artifiziala jarrita lanak %80an txikituko lirakeela uste du.



Javier Andueza biltegian, belarra zaintzeko makinak erakusten.

dugu. Sekulako lana du. Bizpahiru lagun egoten gara jo eta ke, egun bakoitzean lauzpabost ordu". Horretaz gain, zelaiaren abonatu behar da, belar txarrak kentzeko herbizidak bota, eta ongi zaindu. Behin "sustoa" izan zuen. "Zelaiaren "Hervicida total" delakoa bota, eta txandria egin nuen. Berririo belarra erein egin behar izan genuen".

Zelai Berriko zelai alfonbra bat bezalakoa da eta gozamenak bertan jokatzea, baina atzean lan erraldoia dago. Eta gastua. "Makina bat diru uzten dugu abonuetan, herbizidetan, makinaren mantenuan eta markatzeko erabiltzen dugun pinturan" dio. Eguraldi txarra hasi arte, Erregionalaz aparte, Lagun Arteako gainontzeko taldeek ere Zelai

**"ZILARREZKO DOMINA LANAREN AITORTZA DA. GUZTIEKIN GOGORATUTA HARTUKO DUT"**  
JAVIER ANDUEZA

Berrin jokatu izan dute: jubentilerik, kadeteek eta infantilerik. "Duela hamabost egunera arte bertan ibili dira, gustura. Baina eguraldi txarra hasten denean, Itxesaldan jokatzen dute, Zelai Berriko zelaiak ezingo ziolako martxa horri eutsi. Ezin denean, ezin da, baina, bestela, joka dezatela guztiek". Egun sei talde ditu Lagun Arteak, aipatutakoak eta kimuen bi talde, eta 300dik gora bazkide.

### Belar artifizialaren ametsa

Zelai Berrin belar artifiziala jarri ahal izatea da Javier Anduezen ametsa, "baina udalak eman beharko luke eskaera egin eta dirulaguntzak eskatzeko prozesua, Zelai Berrin berarena delako. Gu aurreproiektua ordaintzeko prest gaude, baina momentuz udalak ez du gaia serio hartu. Kaixer zinegotzia zenak belar artifizialarekin interesa zuen, gaia lantzeko ilusioa. Bere galera zori txar handia izan da guztiendako. Ea norbaitek bere lekukoa hartzen duen".

1996tik Lagun Arteako juntan dago Javier Andueza. "Denetatik tokatzen zait: zelaiaren zaindu, soldadura lanak, eta obrak eta konpontetarak. Eta afariak ditugunean, sukaldari. Denetatik" dio, irribarrez. Une goxo asko bizi izan dituzte. "Hiru partida jarraian irabazterakoan afariak egiten genituen elkartearen edo beranduago Zelai Berrin egin genuen txokoan. Futbolariak ere bazkariak egiten dituzte bertan". Baina baita une gogorak ere. "Urte batean juntako hiru kide hil ziren: Santi Mendieta, Jesus Arraiza eta Jose Miguel Olano. Arraizarekin makina bat ordu sartu izan ditugu biok, zelaiaren txukuntzen. Mendieta ere harreman oso estua nuen. Oso gogorra izan zen". Hiruren aldeko oroigarria dago Zelai Berrin.

Gorputzak segitzen dion bitartean lan egiteko prest jarraitzen du Anduezak, gizon aktiboa baita. "Nik ez diot beldurra lanari. Egutegian markatuta izaten ditut egunero egin beharrekoak". Zelai artifiziala lortzea mugarriz izan liteke. "Zelai artifizialarekin futbol talde batek dituen lanak %80 desagertzen dira. Zelai artifiziala jarriko balitz, lasai utzi nuke junta, gelditzen direndako eta atzetik etortzen direndako klubeko lana errazagoa izango litzatekeelako".

### Eskertuta

25 urte baino gehiago futbolaren alde egindako lanagatik Nafarroako Gobernuaren zilarrezko domina jasoko duela, Javier Hernandez Lagun Arteako presidentea esan zion. "Nik ez dut sekula nabarmendu nahi izan, baina egin ditugun eta oraindik egiten ditugun

## Urrezko domina eta kirol balioa



IOSEBA FERNANDEZ FERNANDEZ IRRISTALARIA

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituaren Urrezko Domina eman diola "sorpresaz" hartu du Ioseba Fernandezek. "Erretiroa hartu eta bi urte ondoren ez nuen saria espero, baina oso eskertuta nago. Nire bizitzako etapa hori itxeko baliatuko dut".



IMANOL ERBITI OLLO TXIRRINDULARIA

Aurten hartu du erretiroa Imanol Erbiti Ollo Hiriberriko txirrindulari handiak. Nafarroako Gobernuak domina emango dio, "kirol balioak sustatzeagatik eta kirolaren bidez Nafarroaren irudia nazioartean zabaltzeagatik". Merezitako eta eskertutako saria.

lanekin gutxienez bakarren bat gogoratzea, ez dago gaizki. Lanaren aitortza da. Pentsatzen jarrita, nik saria Mendieta emango nion, edo Arraizari... eurekin asko gogoratzen naiz. Baina niri tokatu zait, eta guztiekin gogoratuta hartuko dut". Omendu bakoitzak bi pertsona eraman ditzake ekitaldira, eta Anduezak bizian bidaide duen amaztea eta alaba izango ditu alboan. "Gutxienez Nafarroako Jauregiko salak ikusiko ditugu" dio, irribarrez. Atzera begiratuta, ereindakoak merezi du. Eta sariak ere.



2022ko XVIII. Sakanako Pala Txapelketako finalista guztien talde argazkia. ARTXIBOA

# Etxekoan, inoiz baino palista sakandar gehiago

**PALETA GOMA** Guztira 76 palistek hartuko dute parte asteburuan Etxarrin hasiko den Sakanako XIX. Pala Txapelketan. Elite eta Lehen mailan palista onenek hartuko dute parte, eta bi maila horietan zazpi sakandar daude, orain arteko kopururik handiena

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Sakanako Mankomunitateak Gure Pilota elkartearekin eta bestelako entitateekin antolatutako XIX. Sakanako Pala Txapelketa asteburuan hasiko da. Urtero lez, palista onenak lehiatuko dira txapela preziatuenen bila. "Etxarri Aranazko Gure Pilotako Miguel Aristorenak eta Yanira Aristorenak lan handia egiten dute txapelketa antolatzen, eta aurten ere goi mailako txapelketa prestatu dute" azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak.

## 76 palista

XIX. Sakanako Pala Txapelketa hiru mailatan jokatzeko da: eliteak, lehen maila eta txikiak. Guztira

38 bikotek hartuko dute parte: sei bikotek elite mailan, bi multzotan banatuta; bederatzik lehen mailan, hiru multzotan banatuta; eta txikien mailan 26 bikotek, bost kategoriatan banatuta: txitoak (zortzi palista dira eta elkarren artean jokatuz erakustaldia egingo dute); kattagorriak (bost bikote); tximeletak (bost bikote); usoak (bost bikote) eta pottokak (lau bikote). Beraz, guztira 76 palista lehiatuko dira Sakanako Pala Txapelketan. Partida gehienak Etxarri Aranazko Euskalerriari pilotalekuan jokatuko dira.

## Harrobi ederra

Txikien mailako 23 bikoteetatik gehienak Gure Pilota klubeko

palistak dira. "Eskola oso osasuntsu dago. Aurten junta berria dute Gure Pilotan, eta sartu diren guraso batzuk asko inplikatu dira elkartean, aristorenatarrekin batera. Udan Nafarroako herri askotan ibili dira pala partidak jokatzen, eta palaren zabalte lan polita egin dute" nabarmendu du Gerrikagoitiak.

Baina aurten nabarmentzekoa da goiko mailetan, eliteetan eta lehen mailatan, guztira zazpi palista daudela, orain arteko kopururik handiena. Hori oso albiste ona da, harrobian lan bikaina egiten ari den seinale. Elite mailan Naroa Otxoa eta Irati Igoa etxarriarrek parte hartuko dute, eta lehen mailan

## Sakanako Pala Txapelketa

### Lehen jardunaldia

#### Eliteak

Azaroak 26, 11:00etan, Etxarrin:  
• Irazustabarrena-Irati Igoa / Espinal-Ardanaz

#### Abenduak 6

• Zulaika-Gorostiaga / Galdos-Ruiz de Azua

#### Lehen Maila

Azaroak 25, 16:30ean, Etxarrin:  
• Lexuri-Kerejeta / Auritze Eguskiza  
• Lopez-Sarasibar / Artazkoz-Astiz

#### Azaroak 26, 12:30

• Mazizior-Larraza / Purroy-Onditz

#### Txikiak

##### Bigarren jardunaldia

Azaroak 24, 18:00etan, Etxarrin:  
• Izar B.-Naiara / Goiatz-Izane  
• Laiatz-Sarai / Irene-Olaia  
• Izaro-Anitz / Natale-Katixa S.  
• Sua-Olaitz / Leire-Alaine

#### Azaroak 25, 10:00etan, Etxarrin:

• Haizea-Nahia I. / Malen-Arhane J.  
• Jare-Irati L. / June C.-Arhane G.  
• Eider-I. Zabalza / Laida-Iraia A.  
• Uxue-Izadi / Olaia-Nahia G.



Zabaleta eta Ezkurdia. UROLA K. HITZA

## PILOTA Ezkurdia, Martija, Zabaleta eta Arbizu, prest

Gaur hasiko dira Binakako Pilota Txapelketa eta Binakako Serie B Txapelketa, promesen mailakoa, hain zuzen ere.

Maila nagusian Ezkurdiak eta Tolosak Peio Etxeberria eta Zabaleta izango dituzte aurkari gaur, azaroak 26, Azkoitian. Zabaleta "pozik" dago Etxeberria bidaide izango duelako. Etxarreno atzelariarekin jokatzea berme handia da, eta bikote ederra osatuko dute. Ezkurdia eta Tolosa bikote izan ziren 2022an, eta behetik gora egin zuten. "Badakigu favoritoen kinenlan beste bikote batzuk daudela, baina guk sorpresa eman nahi dugu" dio arbizuarrak. Altuna ordezkaturiko duen Elezkanok eta Martijak Elordi eta Rezusta izango dituzte aurkari azaroaren 30ean, Eibarren.

Serie B Txapelketan bere lehen-dabiziko txapelketa handia jokatuko du Aaron Arbizu etxarriarrak. Salaberriarekin osatuko du bikotea. Azaroko 30eko jaialdian jokatuko dute, Exposito-Gaskueren kontra.



\*Gorde zerbaki hau

Maialen Larraza etxarriarrak, Lexuri Lazkoz lizaratarrak, Onditz Gaintzarain arbizuarrak, June Astiz uhartearrak eta Auritze Beltza etxarriarrak.

## Zelandiko tenis pista berria, bukatuta

**TENISA** Udal tenis eskolaren aspaldiko eskaria da. Atabo udal enpresak kudeatuko du bere erabilera.

Zelandi kirol gunean tenis pista egiteko lanak bukatu dira. Construcciones Lacunza enpresak egin ditu, eta 137.940 aurrekontua izan dute. Lan horiek finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontutik 146.410

euroko partida jasoko du udalak, horretarako Geroa Bairen emendakina onartua baitzen.


Tenis pista 18,30 metro zabal eta 36,5 metro luze ditu, eta hesituta dago, baimendu gabeko erabilera eragozteko. Argiteria

propioa (8 metroko lau poste) eta euri urak jasotzeko azpiegitura du, eta nazio lehiaketak hartzeko baldintzak betetzen ditu.

Tenis pista egitearekin, udal tenis eskolaren aspaldiko eskariari erantzuna eman zaio. Ricardo Canterok koordinatzen duen tenis eskolakoak pozik daude, pista berriaren erabilpena sustatzeko gogoz. Atabo elkarte publikoak kudeatuko du erabilera. Orduko 4 euroko prezioa izango du, eta argiteria erabiliz gero, 6,5 eurokoa.



Tenis pista Zelandi kiroldegi gunean dago eta hesituta dago.



Lakuntzako kultur etxearen eszenatokia. ARTXIBOA

# Herri Antzerkiaren lehenengo urratsak

Lakuntzar talde batek herrian antzerki taldea sortzeko proposamena egin du. Lehenengo batzarra azaroaren 20an egin zuten, eta pixkanaka jende gehiago batzea nahi dute. Astelehenetan egingen dituzte topaketak

**E. R. B. LAKUNTZA**

Ikasturtearen amaieran, maiztean, Lakuntzako Herri Eskolako ikasleek Lakuntzako hizkeran egindako *Hau suertie dekaune!* antzezlanaren egin zuten. Ane Miren Iruretagoiena irakaslea zuzendaria izan zen; lakuntzarrak sortu zuten antzezlanaren eta ikasleei irakatsi zion: "Gure ikasle gehienek arrotza dute herriko hizkera. Herri hizkera sustatzeko asmoz egin genuen". Esperientziarekin pozik guraso batek helduendako "horrelako zerbait" egitea proposatu zuten. "Baina hor gelditu zen". Iruretagoienak proposamena Aiaupenarik Lakuntzako euskara taldeari luzatu zion, eta ideia oso polita zela esan zioten, baina ez zuten aurrera egin, "eta ni ere ahaztuta nengoen". Duela aste batzuk guraso horrek, Mikel Peñak, berriz deitu zion eta proposamena Jon Zubiaga *Osoron* Lakuntzan bizi den aktoreari egin zion ere, "hirurok batzar bat egin, eta deialdi zabal bat egitea erabaki genuen". Azaroaren 20an egin zuten lehe-

nengo batzar irekia; Herri Antzerkiaren lehenengo urratsak eman zituzten.

Bost pertsona bildu ziren Lakuntzako Herri Antzerkia sortzeko lehenengo batzar horretan, eta hurrengo urratsa jendea erakartzea izango zela erabaki zuten: "Datorren asterako bakoi-tzak beste pertsona bat eraman behar dugu". Bideo "txiki bat" egingo dute egitasmoa promozionatzeko.

Ihabarko Herri Antzerkia dute eredu. "Herri ia guztiak parte hartzen du. Hori izugarria litzateke". Momentuz, proiektu "xumea" egin nahi dute. "Deialdia hain zabala egin genuenez, agian jendea larritu da". Zehaztasunak antzeztutako "bideo txoen" bidez

**PROIEKTU "XUMEA" EGIN NAHI DUTE; ANTZERKI ARIKETAK EGITEN HASIKO DIRA, ASTELEHENETAN**

emango dituzte, baina Iruretagoienak aurreratu duenez astelehenetan 18:30ean 20:00etara bilduko dira, Lakuntzako kultur etxean, eta "nahi duenak parte har dezake, belaunaldi guztiei eta jatorri guztiei zabaldua egongo da; hizkuntza aldetik ere ez da arazorik izango".

"Lehendabizi ariketak egingo ditugu, Jonek asko kontrolatzen du; ahotsak aldatzeko, kofidantza hartzeko eta abar. Oinez hastea da". Esketz laburrak edo bideoak egitea ideia bat da: "Aspaldi *Ama begira zazu* antzezlanaren egin zuten eta lau pertsonen lau esketz egiten zituzten, haien artean erlazioz ez zutenak. Horrelako zerbait egitea pentsatzen ari gara". Esketz laburrak egiteko "gai" direla ikusten dute, "beldur gara gauza luzeak edo asko entseatu beharra dutenak egiteko".

Lehenengo urratsak baino ez ditu eman Herri Antzerkiak, "ez dakigu zer aterako den, baina bakarrik horretan pentsatuz irribarra ateratzen zitzagun".



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

## Halston

Aurreko egunean Netflix kuxkuxeatzen hari nintzela telesail batekin topo egin nuen, "HALSTON" diseinatzailearen biografia. Berehala klikatu nuen, eta benetan gomendagarria dela esango dizuet.

Agian ez da beste pertsonaia batzuk bezain ezaguna, baina moda munduan garrantzia handia izan du. Ospe internazionala 70.eko hamarkadan lortu zuen. Hasiera batean emakumeendako kapelak diseinatu eta egiten hasi zen. Oso ezaguna egin zen Jacqueline Kennedyk berak diseinatutako kapela erabili ondoren. Luxuzko materialek erabiltzen dituzten diseinu garbiengatik ezaguna, hala nola, zeta, gasa edo kaxmirra, geroago Halstonen estetika oso ezaguna bihurtu zen Urban-chic komunitatean.

Ameriketako Estatu Batuetako lehen moda-diseinatzaile superizarra kontsideratu zen. Elizabeth Taylor edo Liza Minnelli bezalako ospetsuak ekarri zituen bere boutique-etara. 1975 eta 1977 artean bere perfume linea homonimoak 84 milioi dolar irabazi zituen.



Ohikoa zen New Yorkeko gauean ikustea, Studio 54-en. Lizunkeria hutsa zen bere bizia, amodio eta samurtasun gabekoa. Haurra zela bere amak aitaren aldetik tratatu txarrak jasan zituen, Halstonek baita ere.

Heldua zela hamar urtez harreman bat mantendu zuen Victor Hugorekin. Askok esaten dute bere "Kriptonita" izan zela, influentzia txar bat. Beraien harremana ez zen amodiozkoa, interesezkoa baizik; Hugok Halstonen dirua gastatzen zuten bitartean, Halstonek "konpainia" jasotzen zuten.

1976an, gaueko bizitza asaldatuak bere marka propioa Revlon konpainiari saltzera behartu zuen. Bere bizitzako azken hilabeteak Ozeano Bareko errepideetatik paseatzen eman zituen. 57 urte zituela hil zen San Franciskoko (Kalifornia) ospitale batean.

## Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz etxarriarrak finalean

Joanes Illarregik irabazi zuen Lesakako finalaurrekoa, eta finalerako sailkapen zuzena lortu zuen

SAKANA

Abenduaren 2an jokatuiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, eta Lesakan jokatuiko azken finalaurrekoan zortzi bertsolari finalisten zerrenda osatu zen. Saioa Alkaiza, Julio Soto eta Joanes Illarregi Altsasuko, Agoizko eta Lesakako saioetako hiru irabazleei, Xabat Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Alzuri, Saats Karasatorre Martinez eta Sarai Robles Vitas gehitu zaizkie. Bi sakandar izanen dira finalean,

beraz, Lazkoz eta Karasatorre etxarriarrak.

Lesakako finalaurrekoan Beñat Beñat Astiz, Eki Mateorena, Josu Sanjurjo, Eneko Lazkoz, Mikel Lasarte eta Joanes Illarregi aritu ziren, Alaitz Rekondo gai jartzailer izan zen eta epaile lanetan Amaia Telletxea, Cesar Etxeberria, Mikel Beaumont, Nerea Bruño eta Saioa Mitxelena aritu ziren. Illarregik eskuratu zuen puntu gehien, 525,5 eta haren atzetik Lazkoz (521,5), Sanjurjo (492,5), Manteorena (458), Lasarte (453,5) eta Astiz (401) sailkatu ziren.

# "Edozer izan daiteke inprobisatzea, instintutik dator"

**JOSEBA YERRO IZAGIRRE** DANTZARIA

Inprobisazioan oinarritutako teknika metodologikoa garatu du altsasuarrak, eta sortzen eta irakasten ari da orain altsasuarra, tartean La Faktorian

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dantzan lehenengo urratsak Altsasuko Dantza Eskolan eman zituen Joseba Yerro Izagirre altsasuarrak; zazpi urterekin euskal dantza egiten hasi zen. Hamaka urte zituenean Iruñeko Dantza Eskola batera joan zen balleta ikastera. Bertan jakin zuen dantzaria izan nahi zuela, baina ez zen egun batetik besterako erabaki bat izan. Batxilergoa eta selektibitatea egin ondoren Bartzelonara joan zen Institut del Teatre kontserbatorioan dantza garaikideko goi mailako ikasketak egitera. Bartzelonan It Dansan konpainian aritu zen eta ondoren Herbehereetara joan zen, proiektu bat egitera. Bertatik Galesko National Dance Companyn egon zen eta duela zortzi urte Goteborgera iritsi zen, bertako GoteborgsOperans Danskonpainiko dantzari izateko. Abenduaren 2ra arte Nafarroan izanen da, eta, besteak beste, Laida Aldaz etxarriarra zuzendaria den Iruñeko La Faktoria zentru koreografikoan irakasle da.

## Zein etapatan zaude orain? Zertan ari zara?

GoteborgsOperans Danskonpainian jarraitzen dut, baina aurtien eszendentzia hartu dut. Lekua mantentzen didate, baina aukera daukat ateratzeko eta beste proiektu batzuk egiteko. Freelance moduan nago, eta irakaskuntzari espazioa ematen ari naiz.

## Zer balantze egiten duzu?

Oso leku polita da eta asko ikasi dut. Egia esan, lehenengo bi urteak behar izan nituen nire lekua zein zen jakiteko. Konpainia oso handia da, ia 40 dantzari gara, ez da iristen, baina asko gara. Beraz, lehenengo urteak ikasteko eta talde horretan zer egin nezakeen jakiteko izan ziren. Zer eman dezakedan jakiteko. Gero gutxi gorabehera gorpuztu edo barneratu nuenean, asko ikasi dut. Ikuskizun izugarriak egin ditugu. Birak egin ditut, Iruñean egon nintzen, Europan zehar Alemanian, Frantzian eta abar; baita Txinan, Taiwanen, Hego Korean ere.

## Dantza ez ezik, asko ikasi duzu, ezta?

Dantzari gisa asko ikasi dut, baina independienteagoa naitzela sentitzen dut ere. Goteborgeko, Suediako bizitza, nola den ezagutu dut ere. Oso desberdina da.

## Dantza, eta kultura orokorrean, gehiago zaintzen dute?

Bai. Laguntza gehiago dago. 40 dantzari talde bat mantentzea ez da erraza. Herrialdeak arteari eta kulturari laguntza asko eskaintzen die, hemen baino gehiago dela nabaritzen dut.

## Eta publikoak erantzuten du?

Goteborg biztanleria aldetik Zaragoza bezalakoa da, eta ikuskizun gehienetan sarrerak bukatzen dira. Horrek esan nahi du jendea joaten dela. Opera saiatzen ari

da konpainia nazioartean zabaltzen ere.

## Egon zaren konpainien arteko desberdintasunak?

Bartzelonakoa aurre profesionala zen, graduondoko bezalako konpainia bat izan zen. Bi urtekoa izan zen eta niretako profesional mundurako palanka antzeko bat izan zen. Galesko National Dance Companyn eta Goteborgko konpainietan, bieran, koreografo desberdinak ditugu eta beraiek lantzen dituzte obrak. Ez dago koreografo bat bakarrik. Ikuskizun bakoitzarentzat koreografo bat dago. Konpainien arteko desberdintasun nabarmena da Galesen hamar dantzari ginela eta Goteborgen 40. Gales izan zen konpainia edo instituzio batean, dantzatzen nintzen lehenengo aldia, eta bertan ikusi nuen nola egiten den lan konpainia batean eta gainera ez ziren bakarrik sorkuntza proiektuak, baizik eta trebakuntza proiektuak egiten zituzten ere. Orduan, irakaskuntza proiektu batzuk egin nituen. Galesko konpainia bakarra zen eta helburua jendea erakartzea zen, eta Goteborg konpainiaren helburua nazioartean zabaltzea da.

## Nolakoa da dantzari profesional baten bizitza?

Nire bizitza orain esan daiteke nahiko normala dela. Gutxi gorabehera zortzi ordu lan egiten dut, eta gero etxera joaten naiz. Baina egia da honaino iristeko

gauza asko atzean utzi behar izan ditudala. Sakrifizio handia egin behar da, bereziki lehenengo urteetan; ez duzulako teknika menperatzen eta ikasi behar duzulako, eta akats asko egin behar dituzulako gauzak perfektionatzeko.

## Eta frustrazioa dago?

Prozesuan frustrazio handia dago. Frustrazioarekin lan egin behar dugu askotan. Orain ere, egunero. Agian koreografo bat dator eta zerbait irakasten dizu zure gorputzean normalean ez dagoen materiala, eta egokitu behar zara. Ezezko asko jaso behar ditugu ere; audizioak edo kastinak egiten dituzunean normalean ezetzak jasotzen dituzu. Hori ere eramaten jakin behar duzu. Erresidentzia artistikoak eskatu nahi badituzu, zure sorkuntzak aurrera eramateko espazioak, eta normalean freelance moduan zaudenean egonaldiak egiteko eskatu behar dituzu, askotan ezetzak jasotzen dituzu. Errepikapen asko egin behar dituzu...

## Ikuskizunak ez daudenean, zein da zure lana?

Urte hau gauza desberdinak egiteko erabiltzen ari naiz; irakaskuntzari aukera eman diot, baita nire sorkuntzari ere. Ikuskizunik ez dagoenean beti dago zerbait lantzeko. Konpainian estreinaldi bat egin eta hurrengo ikuskizunak lantzen hasten gara. Beti dago lantzeko zerbait. Denak jarraian egiten dira.

## Irakaskuntzara saltoa eman duzu.

### Nola sortu zaizu aukera?

Egia esan, duela hiru urte, pandemiaren aurretik gutxi gorabehera, inprobisazio praktika bat sortzen hasi nintzen konpainian. Nire lehenengo helburua niretako zerbait sortzea zen, ikuskizun bat sortzea, eta estudioan lan egiten hasi nintzen. Baina ikusi nuen ez zitzaidala ezer interes-

## "PROZESUAN FRUSTRAZIO HANDIA DAGO; BERAREKIN LAN EGIN BEHAR DUGU ASKOTAN"

## "GAUZA DESBERDINAK EGITEN ARI NAIZ; IRAKASKUNTZA ETA NIRE SORKUNTZA"

garririk ateratzen. Pentsamendu asko nituen, baina ez nekien nola gorpuztu. Konpainian bertan irakasteko aukera sortu zitzaidan, eta pentsatu nuen aukera polita zela pentsamendu horiek elkarbanatzeko. Horrela hasi nintzen. Jendeak oso ongi erantzun zuen, eta poliki-poliki hasi nintzen gero eta gehiago irakasten; ez bakarrik dantzari profesionali baizik eta dantzari egin ez duen jendeari ere. Eszendentzia hartzea erabaki nuenean urte hau praktika hori pixka bat gehiago elkarbanatzeko baliatu nezakeela pentsatu nuen; teknika edo metodologia zabaltzeko eta garatzeko. **Zure teknika hori hitzekin azal dezakezu?**

Dantzatzen hasi nintzenetik inprobisazioarekin interesa izan dut. Orduan, inprobisazioa niretako oso modu polita da nolabait gorputzarekin eta imaginazioarekin konektatzeko. Nire praktika hori da. Ordu bateko inprobisazio estruktura bat izaten da. Bost edo hamar minutuko inprobisazio batekin hasten gara eta gero musikarekin eta nire gidaritzapean lurrean mugitzen hasten gara, meditazioak eman digun egoera korporala eta mentala jarraitzen. Poliki-poliki zutik jartzen gara eta bertikalitatea sortzean indibidualki lan egiten dugu eta iristen da momentu bat non elkartzen garen eta elkarrekin egotean besteen gorputzek norberaren gorputzera informazioa bidaltzen dute, eta elkar puntu bat dago. Momentu batean *shake* edo astialdi bat dago eta hortik erlaxazio ariketa batekin bukatzen dugu saioa, lurrean. Normalean modu indibidualen hasten gara eta guztien energiarekin gure mugimendua lantzen dugu.

## Inprobisazioa dantzaren gauzarik zailenetarikoa omen da, horrela da?

Errealitatean, kalean gaudenean inprobisatzen ari gara. Sozialki inprobisatzeko beldurra dago, baina inprobisatzea gorputzean egotea da, kontziente izatea, baina batzuetan beldurra daukagu. Jendearen eta dantzarien artean harresi moduko bat sortzen da; "haiek dantzariak dira eta ni ez naiz dantzaria eta nik ez dakit nola dantza egin". Baina egia esan inprobisatzea da musika batekin dantzatzea; edo gorputzarekin elkarrizketa bat izatea. Edozer izan daiteke inprobisatzea, instintutik baitator. Sozialki asko



Joseba Yerro Izagirre dantzari altsasuarra.

\*Gorde zenbaki hau



pentsatzen dugu, arrazoia asko erabiltzen dugu: nola izan behar garen, nola aritu behar garen,

eta inprobisatzea pentsamendu horiek alde batera utzi eta institura joatean datza.

#### **Inprobisatzen ikasten da?**

Bai, jakina. Tresnak hartzen joaten zara eta jende guztiak inprobisatu dezake.

#### **Eta edonork egin dezake dantza?**

Baita ere. Batzuetan pentsatzen dugu dantza eta dantza egitea izan behar dela modu polit batean edo modu jakin batean. Baina dantzatzea izan daiteke gorputzaren koordinazio espezifikoko egitea eta agian nire ikuspuntutik pertsona batek egin duen

koordinazioa ez zait gustatzen, baina beste pertsona bati gustatzen zaio. Dena bezala da. Baina edozein dantza egin dezake. Gorputza entzutea da, eta arrazoinamendua alde batera uztea. Nik uste hori dela arazo handiena.

#### **La Faktorian zentro koreografikoan iraskasle zara. Zer nolako esperientzia izaten ari da?**

Oso ona. Ni dantzan hasi nintzenean ez zeuden horrelako espazioak non jatorri desberdinetako irakasleak eta koreografia etortzen ziren gutxienez maila ertaina duten dantzari irakasten dieten.

Oso polita da ikustea espazio batean talde hain anitza, jatorri desberdinetako ikasleak daudelako ere, trebatzen eta formatzen.

#### **Dantza garaikidea nazioartekoa da edo herrialdeka aldatzen da?**

Dantza garaikideak asko hartzen du. Dantza garaikidea hasizenean hainbat estilo zeuden: *release*, *Graham*, *Horton*, *Limon*... Baina orain dantza garaikidea esango nuke nahasketa bat dela. Edozer gauza nahastu dezake; mugimendu urbanoagoak, 1980ko estiloak, inprobisazioa... Gorputzarekin esperimentatzen den hori da. Orduan, pertsona bakoitzak dauka bere mundua eta bere kontzeptua. Azaroaren 17an entsegu ireki bat ikustera joan nintzen eta hori esaten genuen: La Faktoria bezalako espazio bat oso ongi dago koreografo asko joaten direlako irakastera eta gazteak profesioalera saltatzeko garaian daude, hau da, maila nahikoa dute, eta estimululu horiek guztiak hartuko dituzte eta haiek erabakiko dute zerk konektatzen duen beraiekin, eta zerk ez, eta pixkanaka haien bidea egingo dute. Hori da ideia.

#### **Nolakoa da irakasle izatearen esperientzia?**

Nire beste alderdi bat ikusten ari naiz, faltan botatzen nuena. Urte asko egon naiz bakarrik dantza egiten, bakarrik interpretea izaten, eta orain aukera izan dut nire buruan dagoena jendeari elkarbanatzeko eta nirekin berriz konektatzera eraman nau. Gainera, oso interesantea izaten ari da niretako dantza ez delako inoiz Nafarroarekin erlacionatuta egon. Aukera hau izateak ditu beti bananduta egon diren nire bi munduak lotzen ditu. Oso esperientzia polita izaten ari da.

#### **Zer nahiago duzu eszenatokian egon edo irakasle izan?**

**"EDOZEINEK DANTZA EGIN DEZAKE; GORPUTZA ENTZUTEA DA, ARRAZOA ALDE BATERA UZTEA"**

**"NAFARROAN GAUZAK EGITEN ARI DIRA, ETA INTERESGARRIAK DIRA; OSO ONGI DAGO"**

Biak. Bi egoera oso desberdinak dira. Momentu batean nago non sentitzen dudan interprete bezala sorkuntza prozesua faltan botatzen dudala. Sorkuntza prozesu batean zaudenean ez dituzu zuri begira dauden begiak. Kontzeptu edo zerbait sortzeko prozesu horretan murgilduta zaudete. Eszenatokian zaudenean kontzeptua edo pieza egin dago eta bota baino ez duzu egin behar, eta begi asko begira dituzu. Orduan faltan botatzen dut sorkuntza prozesuaren alde lasai edo intimo hori. Gorputzean ere nabaritzen dut. Irakasteaz gustatzen zaidana da burbuila intimo bat badela, eta ez dituzu inguruan begiratzen zaituzten begiak. Gure sentsazioekin eta gure gorputza eta buruarekin nahasi gaitezke.

#### **Nafarroan dantzaren mundua aldatu da?**

Aldatu da, bai. Ni hasi nintzenean ez zegoen aukera handia. Dantza eskola pribatuak zeuden eta gero Nafarroako Gobernuak kontserbatorioa zegoen. Baina gutxi gehiago. Orain sentitzen dut badagoela jendea Nafarroan gelditzen ari dena eta artista olatu bat sortzen ari da eta gauzak sortzen ari dira; prestakuntza zentroak egin dituzte eta aukerak sortzen dira. Nafarroako Gobernu ere hasi da ikusten dantza gehiago lagundu dezakeela eta aukera gehiago sortzen ari dira erresidentziak egiteko eta kultur etxetan ere dantza programatzen da, ez bakarrik Baluartean, esaterako. Oso ongi dago.

#### **Espero zenuen?**

Ez dakit. Garai horretan oso beltza ikusten nuen dena, eta agian ez nuen espero. Baina oso ongi dago ikustea pixkanaka gauzak egiten direla eta interesgarriak direla.

#### **Etorbizunerako proiektuak?**

Abenduan Goteborgera itzuliko naiz, bertan bizi naizelako, eta antzoki batean antzezlan bat egiteko proiektu batean nago. Dantzariak eta antzezleak egongo gara, bien arteko kolaborazio bat izango da.

#### **Eta sorkuntza proiektu propioak?**

Asko gustatuko litzaidake, bai. Orain esploratzen ari naiz izan ditzakedan aukera desberdinak. Zerbait sortzea gustatuko litzaidake baina horretarako erresidentziak eskatu behar dira, onartu behar dituzte... Ideia bat badut, eta orain eskaerak egin behar ditut eta ea zer etortzen den.

# "Bizitzan irabazi dudan gauza bakarra izan da"

1999an ahotsa emateagatik 200.000 pezeta irabazi zituen Rakel Agirre Santano altsasuarrak. Ordenagailuek euskaraz ikas zezaten ahotsa bilketa egin zuen EHUK, Telefonicak eta ETBk; egun Gaitu ekimenarekin egiten ari diren antzeko proiektua

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Duela 24 urte zozketa bat irabazi zenuen. Zergatik?

Dagoeneko 24 urte pasa dira... Gainera, sorpresa izan zen nik normalean ez dudalako gauza hauetan parte hartzen, eta 14 urte nituen, pentsa. Gaztea nintzanean gurasoen etxean sukaldan egiten nituen etxerakolanak, eta irrati bat geneukan eta Euskadi Gaztean jartzen zituzten abestiak asko gustatzen zitzaizkidan, eta hutsik zeuden kasetak erosten nituen eta abestiak grabatzen nituen. Joseina Etxeberria asko entzuten nion eta egun batean azaldu zuen EHUn ari zirela ordenagailuak euskara ulertzeko probak egiten, ez dakit zehazki zer zen, eta ahotsak bilatzen ari zirela eta 200.000 pezeta (1.202 euro) zozketatuko zituztela. Euskadi Irratia asko entzuten nuenez hirugarren edo laugarren aldiz entzun nuenean deitza erabaki nuen.

## 2 Ordenagailuak euskara ikas dezan ahotsak. Ez zitzaizun zientzia fikzioa iruditu?

Garai horretan eta 14 urterekin ordenagailuak bagenituen eta haiekin ibiltzen ginen, infor-



Rakel Agirre Santano altsasuarrak ahotsa emateagatik zozketa bat irabazi zuen. UTZITAKOIA

matika ematen genuen eta etxetan ordenagailuak zeuden mikrofono eta webkamerekin, beraz, ez zitzaidan hain arraroa iruditu. Agian nire gurasoen adinekoei oso arraroa iruditu-ko zitzaien.

## 3 Zer egin behar izan zenuen?

Grabazio bat zen eta euskarazko esaldiak errepikatu behar zenituen. Gero galderaren bat egiten zuten eta erantzun behar zenituen ere. Datuak eman behar ziren ere, izen-abizenak, non bizi-

zinen, urteak eta NA zenbakia. Nik ez nekien eta asmatu egin nuen! 15 edo 20 minutuko grabazioa izan zen, eta osoa egin nuen. Zozketaren eguna aipatu zuten, baina nik ahaztuta nuen. Deiak doainik zirela eta animatzeko esaten zutela gogoan dut ere.

## 4 Altsasuko euskalkian zerbait esan behar zenuen?

Ez naiz gogoratzen. Agian bazeuden horrelako galdera labur batzuk eskualkian esateko, baina ez dut gogoan. Gogoratzen naizena da gauzak errepikatu behar nituela, baina agian euskalkien zerbait bazegoen.

## 5 Nola jakin zenuen irabazi zenuela?

Egun batean ikastolatik etxera autobusean nindoan eta etorri zitzaidan Mikel gizarteko irakaslea: "Rakel! Sari bat lortu duzula, ikastolara deitu dute eta etxera joan behar zarela Euskadi Gazteatik deituko dizutelako". Sustoa hartu nuen, urduri jarri nintzen bera ere urduri zegoelako, eta nik baina ze sari? "Ez dakit, dirua!", erantzun zidan. Oso urduri jarri nintzen, eta nire ama ere urduri zegoen etxera deitu zutelako. Euskadi Gaztean elkarrizketa egin nuen, ETBn, eta handik gutxira Bilbora sariaren bila joan ginen gurasoak, ahizpa eta laurok. Bertan esan ziguten 20.000 dei jaso zituztela eta 12.000 elkarrizketa oso egin zirela.

## 6 Eta 12.000 pertsonatik zuri tokatu zitzaizun.

Lehendabizi beste zenbaki bat ateratu zuten, baina ez zuen elkarrizketa osoa egin eta ez zituzten bere datuak. Bigarren zenbakia

atera zuten eta nirea zen. Ilusioa egin zidan, 14 urteko neskatu bat, pentsa. Sariarekin batera, boli bat, katilu bat eta txeketa eman zizkidaten.

## 7 Deia egitean gurasoei esan zenien?

Imajinatzen dut gero kontatu niela. Nik bakarrik deitu nuen, hori bai. Agian gaur egun ezin da horrelakorik egin baimenik gabe. Momentuan ez nien ezer esan, sukaldan bakarrik nengoen eta elkarrizketa osoa bakarrik egin nuen. Gero kontatuko nien, ez zen sekretu bat eta ez zen ezer arraroa. Gainera, tokatu zaidan gauza bakarra izan da.

## 8 Zer egin zenuen diruarekin? Garaian 200.000 pezeta dirua bazen...

Gaur egun 2.000 euro baino gehiago baziren, bai, eta 14 urterekin gainera. Dirua ez nuen ikusi gurasoek unibertsitaterako kontu korronte batean sartu zidatelako.

## 9 Zure ahotsarekin zer egin zuten jakin zenuen?

Ez nuen ezer gehiago jakin. Saria jasotzera Bilbora joan ginen, eta gure prozesua hor amaitu zen. Ez dakit zerbaiterako erabili zuten edo ez. Suposatzen dut baietz, bestela ez lukete horrelako kanpaina bat egingo 20.000 deia jaso zituzten eta.

## 10 Beraz, ez duzu grabazioa inoiz entzun.

Inoiz.

## 11 Adimen Artifiziala elikatze-ko euskarazko ahotsak bil-tzen ari dira orain Gaitu ekimenean. Parte hartuko duzu?

Bueno, zozketa egiten badute...

## EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

**Diseinu, eredu eta formatu ezberdinak. Aukeratu zurea!**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

*Zure argazkia hemen!*

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f □

619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu